

Graduada en Maestro en Educación Infantil
Haur Hezkuntzako Irakasletzako Graduatua

Trabajo Fin de Grado
Gradu Bukaerako Lana

DANTZA EMOZIOAK LANTZEKO
TRESNA GISA HAUR HEZKUNTZAN

Estudiante: Miren Abaurrea Miqueleiz

Ikaslea: Miren Abaurrea Miqueleiz

Tutor/Tutorea: Gerizpe Iraola Azanza

Departamento/Saila: Ciencias de la salud/Osasun Zientziak.

Campo/Arloa: Dantza eta emozioak/Danza y emociones

Ekainak, 2023

Laburpena

Gradu amaierako lan honen helburua Haur Hezkuntzan emozioak dantzaren bidez lantzea da. Helburua dantzaren eta gorputz-adierazpenaren bidez emozioen identifikazioa eta kudeaketa lantzea da hezkuntza emozionalaren esparruarekin lotuta, eta dantza eta emozioak azpimarratzea, edozein esparru akademikoren garrantzi berarekin, hala nola, gaitasun logiko-matematikoak edo irakurketa eta idazketa.

Horretarako, unitate didaktiko bat diseinatu da, 45 minutuko 7 saioz osatua. Saio horietan emozioak eta dantza batera lantzen dira, eta erlaxazioak eta errutinek rol garrantzitsua daukate.

Gako hitzak: Emozioak; Dantza; Gorputz-adierazpena; Hezkuntza emozionala; Haur Hezkuntza

Abstract

This final degree project aims to work on emotions through dance in the field of Early Childhood Education. The intention is that through dance and corporal expression work on the identification and management of emotions in relation to the field of emotional education, and underline dance and emotions with the same importance as any academic field, such as logical-mathematical skills or reading and writing.

For this, a didactic unit has been designed composed of 7 sessions of 45 minutes each one. In these sessions, emotions and dance are worked together and relaxation and routines play an important role.

Key words: Emotions; Dance; Body expression; Emotional education; Childhood education

Resumen

Este trabajo de fin de grado tiene como objetivo trabajar las emociones mediante la danza en el ámbito de la Educación Infantil. Mediante la danza y la expresión corporal se pretende trabajar la identificación y la gestión de las emociones con relación al ámbito de la educación emocional, y subrayar la danza y las emociones con la misma importancia que

Dantza emozioak lantzeko tresna gisa Haur Hezkuntzan

cualquier ámbito académico, como las competencias lógico-matemáticas o la lectura y escritura.

Para ello se ha diseñado una unidad didáctica compuesta por 7 sesiones de 45 minutos cada una. En dichas sesiones se trabajan las emociones y la danza conjuntamente y la relajación y las rutinas tienen un rol importante.

Palabras clave: Emociones; danza; Expresión corporal; Educación emocional; Educación infantil

AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. JUSTIFIKAZIOA	6
2. MARKO TEORIKOA	7
2.1. Emozioak	7
2.1.1. Emozioaren kontzeptua	7
2.1.2. Emozio motak	8
2.1.3. Emozioen funtzioak	10
2.1.4. Garapen emozionala Haur Hezkuntzan	11
2.2. Hezkuntza emozionala	12
2.2.1. Adimen emozionala	12
2.2.2. Hezkuntza emozionalaren kontzeptua	13
2.2.3. Hezkuntza emozionala eskolan lantzeko beharra	14
2.3. Dantza haurren alderdi emozionalarekin daukan erlazioa	15
2.4. Dantza	17
2.4.1. Dantza, psikomotrizitatearekin eta gorputz adierazpenarekin daukan erlazioa	17
2.4.1.1. Psikomotrizitatea	17
2.4.1.2. Gorputz adierazpena	18
2.4.2. Dantzaren kontzeptua	21
2.4.3. Dantzaren historia	22
2.4.4. Dantza motak	24
2.4.5. Dantzaren elementuak	25
2.4.5.1. Espazioa eta denbora	25
2.4.5.2. Malgutasuna	28
2.4.5.3. Erlaxazioa	29
2.4.6. Dantzaren onurak haurrengan	29

3. JUSTIFIKAZIOA CURRICULUMAREKIN LOTUTA	30
4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	35
4.1. Testuingurua	35
4.2. Denboralizazioa	37
4.3. Haur Hezkuntzako kurrikuluma	38
4.3.1. Helburu orokorrak	38
4.3.2. Funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak	38
4.3.3. Ebaluazio irizpideak	39
4.3.4. Oinarrizko jakintzak	40
4.4. Metodologia	42
4.5. Saioen diseinua	43
1. Saioa: Emozioak identifikatzen	43
2. Saioa: Emozioak azaleratzen	46
3. Saioa: Poztasuna lantzen	48
4. Saioa: Tristura lantzen	50
5. Saioa: Hira lantzen	53
6. Saioa: Beldurra lantzen	55
7. Saioa: Lau emozioak lantzen	57
4.6. Ebaluazioa	59
ONDORIOAK ETA GALDERA IREKIAK	62
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	64
ERANSKINAK	67

SARRERA

Eskuetan duzuen dokumentu honen bitartez hurren alderdi emozionala lantzen duen proposamen didaktiko bat garatu nahi da, dantza tresna gisa izanik. Proposamena haur-hezkuntzako hirugarren mailako hurrei zuzenduta dago, zehazki, bost urteko hurrei.

Diseinatutako proposamena ulertu ahal izateko, lehenik eta behin testuinguruan kokatu behar da, beraz, proposamenarekin lotuta dauden eta dokumentuan zehar landuko diren hainbat alderdi azalduko ditut.

Hasteko, lan honen justifikazioa aipatuko dut, dantza eta emozioen gaiak aukeratzearen arrazoiak azalduz. Ondoren, proposamenarekin lotutako atal teorikoari ekingo diot, emozioei eta dantzari buruzko hainbat alderdi sakonki azaltzeko. Emozioen atalaren barruan, emozioaren kontzeptua, emozioak lantzearen garrantzia eta hezkuntza emozionalaren alderdiak aztertuko ditut, besteak beste. Dantzaren inguruan, lehenik eta behin dantzarekin eta haur-hezkuntzarekin zerikusia duten bi alderdi garrantzitsuei aipua egingo diet: psikomotrizitatea eta gorputz-adierazpena. Jarraian, dantzaren kontzeptuari, historiari, elementuei... bidea emango diet, baita dantzak hurren alderdi emozionalarekin duen harremanari ere.

Jarraian, proposamen didaktikoaren justifikazio kurrikularra azalduko dut, hau da, emozioen eta dantzaren inguruan egin dudana lanketa curriculumarekin daukan lotura azalduko dut. Beraz, 61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumari dagokionez nire proposamen didaktikoa justifikatuko dut.

Oinarri teorikoa garatua izanda, lanaren bigarren zati nagusiari bidea emango diot: atal praktikoari. Atal honetan, proposamen didaktiko bat diseinatuko dut, zehazki unitate didaktiko bat, hainbat saioz eta jardueraz osatua dagoena. Proposamen honen bitartez, hurrek dantzaren eta beste gorputz-adierazpeneko jolas edo jarduera batzuen bitartez haien alderdi emozionala lantzeko aukera izango lukete. Unitate didaktikoa, aurrera eramanez bada ere, testuingurua batean kokatuta egongo da, Mendigoitiko ikastetxe publikoan zehazki, eta hurrekin landu nahi diren helburuak eta diseinatutako metodologia eta ebaluazioa edukiko du.

1. JUSTIFIKAZIOA

Emozioek gure bizitzetan garrantzia handia dute, jaiotzen garenetik hil arte presente egoten baitira. Beraz, emozioak gure bizitzako etapa guztietan gertu izaten ditugu, haurtzaroan, nerabezaroan, helduaroan... horregatik, gure bizitza osoan zehar kokatzen garen esparru guztietan presente daude ere, adibidez, eskolan edo etxean. Hala izanik ere, gure testuinguruetan garrantzia urria ematen zaie, eskolan barne.

Gure bizitzako lehen urteetan emozioak askoz biziago esperimentatzen ditugu, eta emozioak modu egokian kudeatzen jakitea zaila izaten da. Hala ere, hurrek haien emozioak eskolaren esparruan bizitzen dituzten arren, haien lanketa sakona eta etengabekoa ez da ematen, gaur egungo hezkuntzak, oraindik oso tradizionala izanik, alderdi kognitiboa garatzeari gure emozioak kudeatzeari, identifikatzeari edo erabiltzen jakiteari baino garrantzi handiagoa ematen baitio. Horregatik, hezkuntza emozionala alde batera geratzen da emaitza akademikoen aurrean.

Memoria eginez, gogoratzen naiz nerabezaroan emozioak modu egokian kudeatzeko tresna egokirik ez neukala, batez ere haserrea eta frustrazioa kudeatzeko, jada emozio horiek sentitzen nituenean pertsonak gaizki tratatzen nituen eta inguruko objektuei jotzen nien. Denborarekin adierazpide horiek guztiek min baino ez zidatela egiten konturatu nintzen, baita oso gertuko pertsoneri ere kalte egiten niela. Horregatik, gaur egun pentsatzen dut, txikitatik hezkuntza emozional on bat jaso izan banu, haserre- eta frustrazio-une horiek modu osasungarri batean kudeatzeko gaitasuna izango nukeela.

Orain helduaroan ere, emozioen identifikazioa eta kudeaketa nekeza egiten zait, eta horrek nire bizitzan, ez soilik esparru sozialean, baita profesionalean ere, eragina dauka. Beraz, nire ikuspuntutik, emozioen lanketa, matematikak, hizkuntzak edo bestelako irakasgaiak lantzea bezalako garrantzia izan beharko luke, berez, emozioak ere hezi behar dira, hezkuntzaren parte izanik.

Komentatutako arrazoi guzti horiek, emozioen, haien identifikazioaren, trataeraren eta erabilpenaren inguruko lan hau egitera eramán nau. Horretarako, emozioak dantzaren bitartez lantzea erabaki dut. Atal teorikoan azalduko dudán bezala, dantza adierazpiderik natural eta zaharrenetako bat da. Dantzaren bidez, pertsonok barruan daramagun motxila modu osasungarrian adierazten dugu, izan ere, alde batetik, dantza gure buruarekin ongi

sentiarazten laguntzen gaitu eta bestetik, gure barrunbeak adierazten ditugun bitartean, jarduera fisikoa burutzen dugu, gure gorputzeko atal bakoitza mugituz.

Dantza nire bizitza osoan zehar oso presente egon den jarduera izan da; txikitatik dantza egitea gustatu zait, hiru urtez dantza klaseetara joan nintzen eta aspertzen nintzenean edo denbora librean nuenean dantzatzen nintzen ispiluaren aurrean. Dantza beti nire inguruan nituen arazoetatik ihes egiteko, arreta nire baitan, nire beharretan, nire desioetan eta gozamenen jartzeko, eta triste edo haserre sentitzen nintzen momentu guztietan emozio horiek modu osasuntsuan adierazteko aukera ematen zidan.

Beraz, emozioek gure bizitzetan betetzen duten rola eta dantzarekin izan ditudan esperientziak aztertuz, baita dantzak sentiarazi didanari buruz hausnartuz, ondoriozta dezaket dantza haurrek eskolan edo baita etxean ere emozioen inguruko lanketa egiteko tresna baliagarria dela.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Emozioak.

2.1.1. Emozioaren kontzeptua.

"Emozio" hitza latinetik dator eta "*movere*" (mugitu) esan nahi du. Hitzan "e" aurrizkiak kanpora mugitzea esan nahi dezake, hau da, geure onetik ateratzea (*ex-movere*). Urteetan zehar, emozio hitza hainbat modutan deskribatu eta azaldu izan da, baina, oro har, honela defini daiteke: Organismoaren egoera konplexu bat da, eszitazio edo asaldura batek ezaugarritzen duena, eta erantzun antolatua bat eskatzen duena. Emozioak kanpoko edo barruko gertaera bati erantzuteko sortzen dira normalean. (Rafael Bisquerra, 2011).

Emozioaren kontzeptuari erantzunak ematen dizkieten hainbat egile eta korrante daude. Darwinen ustez (1872) emozioa aurpegi-adierazpena da, eboluzio filogenetiko eta ontogenetikoaren emaitza, eta bere zeregin nagusia espeziearen biziraupena eta ingurumen-eskaeretara egokitzea da. Bestalde, Jamesek (1884) emozioen funtsa pertsona batek inpresionatuta dagoenean gertatzen diren aldaketa fisiologiko periferikoen pertzepzioa dela adierazi zuen. Geroxeago, Cannonek (1915), Jamesen jarreraren aurka, emozio bat sentitzeko eta ezagutzeko nerbio-sistema zentralaren eta periferikoaren parte-hartzea beharrezkoa dela zioen. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Psikologia konduktistarekin emozioaren azterketaren interesa zenbait mugimendu glandular eta motorretan mugatu zen (Watson, 1924). Ikuspegi horrek jokabide emozionalaren dimentsio esplizitua eta behagarria, bereganatu zuen. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Kognitiboek, berriz, emozioa honela definitu zuten: barne-prozesu bat da, pertsoneri gertatzen dienaren inguruan dituzten erreakzioak eta sentimenduak interpretatzeko eta esanahia emateko helburua duena. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Honako autore hauek emozioaren inguruko definizio ezberdinak ere eman zituzten: Plutchik (1991) autorearen iritziz, emozioa estuki lotutako gertaeren kate bat da, estimulu batekin hasten dena eta sentimenduekin, aldaketa fisiologikoekin, ekintzarako bulkadekin eta helburu baterantz bideratutako jokabide batekin jarraitzen duena. Hala ere, Izarden ustez (2009), emozioa esperientzia subjektibo atsegina edo desatsegina da, jarduera neurobiologiko eta gorputz-adierazpena dakarrena, eta estimuluaren balioaren berri ematen du. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

2.1.2. Emozio motak.

Emozioak bi eredu arabera sailkatu ohi dira: dimentsionala eta kategorikoa. Eredu dimentsionalaren arabera, emozioak zenbait sekuentzia desberdinek definitutako espazio jarraitu bateko puntutzat har daitezke. Emozioen dimentsioen lehen sailkapena Wilhelm Wundutek (1838-1920) proposatu zuen. Autore horrek zioenez, esperientzia emozionala hiru dimentsio bipolarren arabera deskriba zitekeen: plazera/desatsegina; lasaitasuna/urdukitasuna eta erlaxazioa/tentsioa. Geroago, beste eredu multidimentsional batzuk formulatu dira, eta ia eredu guztietan atsegina/desatsegina eta aktibitate/pasibotasuna ageri dira. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Kategoria-ereduan emozio gutxi batzuk aurkitzen dira, eta horiek kategoria bakar batean bil daitezke, oinarrizko kategorian. Gainerako emozio guztiak bigarren mailakotzat jotzen dira eta oinarrizko emozioen konbinazioen emaitza dira. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Emozioak berez, bi muturreko puntutan kokatu ditzazkegu, hauek positiboak edo negatiboak izanik, baina emozio anbiguoak edo neutroak ere aurki ditzazkegu, hau da, ez positiboak ez negatiboak diren emozioak. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Emozio negatiboak desatseginak dira eta mehatxu edo galera baten aurrean jomuga bat blokeatzen denean esperimentatzen dira. Emozio horiek egoerari aurre egiteko energia eta

mobilizazioa eskatzen dituzte. Emozio positiboak, aldiz, atseginak dira, helburu bat lortzen denean esperimentatzen dira eta gozamina eta ongizatea ekartzen du. Amaitzeko, hirugarren kategoria dago: emozio anbiguoak. Hauek emozio positiboen antza dute, denbora laburtasunari dagokionez, eta negatiboena ere, egoerari aurre egiteko baliabideen mobilizazioari dagokionez. (Rafael Bisquerra, 2011).

Emozioa hiru osagaiez osatuta dago: jokabidezkoa, subjektiboa eta fisiologikoa. Jokabidezko osagaia osagairik behagarriena da; izan ere, gizabanako batek hitzik gabeko hizkuntzaren bidez, batez ere aurpegi-adierazpenaren, jarreraren eta ahots-tonuaren bidez, zer emozio mota ari den esperimentatzen ondorioztatu dezake. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Aurpegi-adierazpenak maiz aztertu izan dira, batez ere aurpegi-zatietan parte hartzen dituzten muskuluak, esate baterako, sudurra, ahoa, bekainak eta abar. Ekmanek katalogo bat argitaratu zuen, aurpegiak sor ditzakeen ekintza guztiak jasotzen dituena, eta adierazpen bakoitza hainbat ekintzatan deskonposatu zuen. Hurrengo taulan, oinarritzko emozioen aurpegi-adierazpenen deskribapena aurkezten da: hira, poza, tristura, beldurra, harridura eta nazka. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

1. taula.

Emozio motak.

EMOZIOA	EZAUGARRIAK	AURPEGI-ADIERAZENA
Hira	Emozio negatiboa da. Kaltetuak izatearen sentazioa dugunean sortzen da. Sumindura edo amorrutako erreakzioa da. Aho-erasoa edo eraso fisikoa berehalako erantzun oldarkor eta geldiezina da.	Ezpainak estutu; bekainak beherantz eta begirada zorrotz eta finkoa.
Poza	Emozio positiboa da. Gertaera onuragarri batek sortzen duen emozioa da. Poztasunaren arrazoi nagusiak hauek dira: lagunekin harremanak egitea, oinarritzko gogobetetzeak (jatea, edatea...) eta esperientzia arrakastatsuak.	Ahoa luzanga; ezpain ertzak gora eta atzera luzatuta; goiko ezpaina eta masailalbo-hezurak altxatuak.

Tristura	Emozio negatiboa da. Garrantzitsua den zerbait galtzeak tristura eragin dezake eta triste gaudenean plazer-sentsazioa eta motibazioa galtzen dugu. Tristurak ez dakar inolako ekintzarik eta emozio honekin besteen arreta bereganatzea proposatzen da.	Ahoa luzanga; inbutu itxurako ezpainak; ezpain-ertzak beherantz. Begi mugagabeak; bekain altxatuak.
Beldurra	Emozio negatiboa da. Beldurra gure ongizate fisiko edo psikikoaren aurkako mehatxuek eragiten dute. Beldurraren esperientziaren aurrean, organismoak azkar erreakzionatzen du, energia ugari mugituz, gorputza egoera normaletan baino erantzun biziagotarako prestatzeko moduan. Beldurrari aurre egiteko modurik ohikoena egoera arriskutsutik ihes egitea edo saihestea da.	Ez dago adierazteko modu bakarra. Orokorrean, begiak zabalik, ezpainak luzatuta horizontalki, irekita edo itxita, bekainak eta betazalak altxatuta, burua atzera makurtuta.
Harridura	Emozio anbigua da. Harridura ezusteko edo egoera arrotz batek eragindako erreakzioa da. Harriduraren eragileak estimulu berritzaileak, ustekabekoak eta abar izan daitezke. Emozio neutroa izanik ere estimuluaren arabera, positiboa edo negatiboa izan daiteke. Emozio laburrena da, eta subjektua ustekabeko gertaerei aurre egiteko prestatzen da.	Ahoa zabalik, kokotsa erorita; bekainak altxatuta; begiak zabal-zabalik.
Nazka	Emozio negatiboa da. Emozio honek zerbait edo norbait baztertzea dakar. Nazkaren eragileak aldentzeko beharra eragiten duten estimulu desatseginak dira.	Beheko ezpaina gorantz; goiko ezpaina altxatuta; sudurra zimurtuta

Oharra. Emozio motak, Rafael Bisquerra, 2011. Liburua.

2.1.3. Emozioen funtzioak.

Emozioak kausa baten ondorioz gertatzen dira, eta bizitzan hainbat funtzio betetzen dituzte. Funtzio horiek lau kategoriatan bana daitezke: kognitiboa, motibatzailea, egokitzailea eta pertsonen artekoa edo soziala. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Hasteko, funtzio kognitiboa daukagu. Emozioek estimuluen aukeraketaren prozesuan parte hartzen dute, hau da, atentzioa informazio batera edo beste batera bideratuz iragazkia egiten dute, unean uneko tonu emozionalaren arabera. Horri dagokionez, esan daiteke subjektu alaiak gertakarien alde positiboak hobeto ikasi eta gogoratzen dituztela, eta ezagutza modu ordenatuan gordetzen dutela; pertsona tristek, berriz, kontrol zehatza egiten dute jasotzen duten informazioaren gainean eta kritiko izateko joera dute. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Bestalde, motibazioa emozioekin lotuta dago, portaerak hasi, mantendu, gelditu eta zuzentzen dituelako, eta, batez ere, lortu nahi den helbururako behar den energia ematen duelako. Tomkinsek (1948) emozioei "motiboen aplikatzaile" deitzen die, jokabidearen eraginkortasuna zabaltzen eta biderkatzen dutelako. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Emozioaren beste funtzio nagusi bat egokitze-funtzioa da. Emozioek distrakzio-funtzioak betetzen dituzte estimulu eta egoera ugari hautematean eta ebaluatzean. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

Azkenik, pertsonen arteko dimentsioan edo dimentsio sozialari dagokionez, beste pertsona batzuekin sortzen diren komunikazio momentuetan sentimenduen eta emozioen trukaketa gerta daiteke. Eginkizun horrek bi helburu ditu, batetik, norberaren sentimenduei, asmoei eta arrazoiei buruzko informazioa ematea, eta, bestetik, besteengan eragitea. (Casanova eta Sanz de Acedo, 2012).

2.1.4. Garapen emozionala Haur Hezkuntzan.

Hurtzarotan zehar, haurrek beren emozioez eta emozioen kausez jabetzen hasten dira; hau da, emozioen zergatiari buruzko harremanak ezartzen dituzte haiengan eta besteengan.

Greenspanek eta Thorndikek (1997) garapen emozionalaren etapak zehazten dituzte bizitzako lehen urteetan. Ikerketen bitartez haurra bizitzako lehen hilabeteetatik emozio positiboak eta negatiboak ezagutzeko gai dela baieztatu da. (Rafael Bisquerra, 2011).

Haurrak emozioak bereizteko gai dira, emozioak izendatzeko gai izan aurretik. Gainera, oso haur txikiak besteen emozioekiko enpatia adierazteko gai dira. Adibidez, bi urteko haur bat aitaren tristura une jakin batean islatzeko gai da. (Rafael Bisquerra, 2011).

Hiru urteko haurrak, pertsonetik trataera helburu desberdinekin bereizteko gai dira. Lau urtetik aurrera, ordea, ipuinetako pertsonaien sentimenduak ezagutzeko gai dira, baita egoera berak hainbat erantzun emozional sor ditzakeela ulertzen dute ere. Adin horretan ere zoriontsu, triste, izutu eta antzeko terminoak erabiltzeko gai izaten dira. (Rafael Bisquerra, 2011).

Bi eta bost urte bitarteko haurren hizkuntza aztertzean, emozioen aurpegi-adierazpenari eta lexiko emozionalari buruzko ezagutza handia dutela ikus daiteke. Adibidez, taldekide bati txantxak egiteak bere ahulguneak ezagutzea esan nahi du. Sei urterekin haurrak borroka egiteak haserrea eragiten duela badakite, baita esperientzia positiboek zoriontasuna sortzen dutela ere. (Rafael Bisquerra, 2011).

2.2. Hezkuntza emozionala.

Emozioak jaiotzen garenetik gure bizitzetan presente daude, eta gure nortasunaren eraikuntzan eta gizarte-elkarreraginean zeregin garrantzitsua dute. Emozioek eboluzio-prozesu guztietan hartzen dute parte: komunikazioaren garapenean, gizarte-ezagutzan, informazioaren prozesamenduan, atxikimenduan, garapen moralean, etab. Gainera, egunero hartzen ditugun erabakien iturri nagusiak dira. (Élia López, 2005).

Emozioak edozein espazio eta denboratan bizi ditugu, familiarekin, lagunekin, inguruarekin, berdinekin, etab. eta eskola emozioak garatzen diren ezagutza- eta esperientzia-eremu bat gehiago da. Beraz, garrantzi hori beste eduki bat bezala hartu behar da, pertsonen garapen integrala bultzatzeko. (Élia López, 2005).

Hezitzeak pertsonen garapen integrala aintzat hartzea esan nahi du, gaitasun kognitiboak, fisikoak, linguistikoak, moralak, afektiboak eta emozionalak garatzea. Beraz, emozioak ere hezi egin behar dira, eta eskola horren parte da. (Élia López, 2005).

2.2.1. Adimen emozionala.

Adimen emozionala meta-trebetasun bat da, eta gure beste trebetasun batzuk, adimena barne, zer neurritan erabil ditzakegun zehazten du. (Rafael Bisquerra, 2011).

Daniel Golemanentzat, "adimen emozionala" frustrazioen aurrean motibatze eta irauntzeko, bulkadak kontrolatzeko, umore-egoerak erregulatzeko, enpatia eta itxaropena garatzeko... gaitasuna izatea da. (Rafael Bisquerra, 2011).

Daniel Golemanen arabera (1995, 43-44), adimen emozionala honako honetan datza (Rafael Bisquerra, 2011):

- Emozio propioak ezagutzea: une zehatz batean gertatzen den sentimendu bat ezagutzea.
- Emozioak maneiatzea, horretarako norberaren emozioez jabetu behar da.
- Bere burua motibatzea. Lehenik aipatu dudan moduan, emozioak eta motibazioa elkarri lotuta egoten dira. Emozioak helburuetara bideratzea nor bere burua motibatzeko funtsezkoa da.
- Besteen emozioak ezagutzea. Enpatia altruismoaren oinarria da eta emozioen ezagutzan oinarritzen da.
- Harremanak ezartzea, neurri handi batean emozioak maneiatzeko trebetasuna baita.

Golemanek (1995) bi garun daudela argudiatzen du: arrazionala eta emozionala. Lehenengoa arrazoiketaz arduratzen da eta portaera intelektuala zuzentzen du; bestea, berriz, emozioez arduratzen da eta kontrolik gabeko erreakzioak eragin ditzake. (Rafael Bisquerra, 2011).

Roviraren arabera (1998), emozionalki adimentsua den pertsonaren oinarritzko ezaugarriak daude: jarrera positiboa, norberaren sentimenduak eta emozioak ezagutzea, sentimenduak eta emozioak adierazteko eta kontrolatzeko gaitasuna, enpatia izatea, erabaki egokiak hartzeko gai izatea, motibazioa, ilusioa eta interesa, autoestimua, ematen eta jasotzen jakitea, zailtasunak eta amorrak gainditzeko gai izatea eta polaritateak integratzeko gai izatea, hau da; emozionala eta kognizioa dena integratzea. (Rafael Bisquerra, 2011).

2.2.2. Hezkuntza emozionalaren kontzeptua.

Emozionalki hezteak emozioak baliozkotzea, besteekin enpatia izatea, sentitzen ari diren emozioak identifikatzen eta izendatzen laguntzea, mugak jartzea, besteekiko harremanak izateko modu onargarriak irakastea, norbera maitatzea eta onartzea, besteak errespetatzea eta arazoak konpontzeko estrategiak proposatzea esan nahi du. (Élia López, 2005).

Hezkuntza emozionala hezkuntza-prozesu jarraitua eta iraunkorra dela esan daiteke, garapen emozionala garapen kognitiboaren ezinbesteko osagarri gisa indartu nahi duena, biak nortasun integralaren garapenaren funtsezko elementuak izanik. Horretarako, emozioei buruzko ezagutzak eta trebetasunak garatzea proposatzen da, gizabanakoa eguneroko bizitzan planteatzen diren erronkei hobeto aurre egiteko. Horren guztiaren helburua ongizate pertsonala eta soziala handitzea da. (Rafael Bisquerra, 2011).

Hezkuntza emozionala lehen mailako prebentzio zehaztugabe bat da, disfuntzioen ahultasuna minimizatzen edo prebenitzen saiatzen dena. (Rafael Bisquerra, 2011).

Hezkuntza emozionalaren helburuak gaitasun emozionalak garatzea, norberaren emozioak hobeto ezagutzea, emozio propioen kontrola garatzea, emozio negatiboen ondorio kaltegarriak saihestea, emozio positiboak sortzeko trebetasuna eta norbera bere buruari motibatzeko eta bizitzaren aurrean jarrera positiboa hartzeko trebetasuna garatzea dira. (Rafael Bisquerra, 2011).

Hezkuntza emozionala izan nahi duguna, ikuspuntu etiko batetik, eta garena, ikuspegi biologiko batetik, hurbiltzeko zubi gisa balio du. Emozionalki hezteko (Bach eta Darder, 2002), haurraren pentsamenduaren, emozioaren eta ekintzaren arteko sinbiosia sustatu nahi duten jarrera afektiboetatik abiatzen da. (Élia López, 2005).

2.2.3. Hezkuntza emozionala eskolan lantzeko beharra.

Vallésen (2000) ustez, eskola-eremuan adimen emozionalerako trebetasunek ez dute curriculumeko beste arlo batzuetako curriculum-trataera bera. Hala ere, norberaren eta besteen emozioak eta sentimenduak deskubritzeko premiaren eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko egokitasun sozial eta pertsonalaren aurrean sentsibilizazio-jarrera positiboak hartu behar dira. (Carmen de Andrés Viloría, 2005).

Hezkuntza emozionala justifikatzeko erabil daitezkeen argudioen artean, M. Álvarezek (2001) honako hauek aipatzen ditu (Carmen de Andrés Viloría, 2005):

- Bizi-egoerak:
 - Gure bizitzan emozioak etengabe sentitzen ditugu. Gogobetetzeak ilusioz jokatzera bultzatzen gaitu.

- Etengabe tentsio emozionala eragiten diguten estimuluak ari gara jasotzen: etenaldiak, ustekabeak, gatazkak, berri desatseginak, galerak, gaixotasunak.
- Hezkuntza-egoerak:
 - Delors txostenak hezkuntzaren lau zutabe aipatzen ditu: ezagutzen ikastea; egiten ikastea; elkarrekin bizitzen ikastea; izaten ikastea. Azken biak pertsonen arteko eta pertsona barruko adimenarekin lotzen dira, eta, beraz, hezkuntza emozionalarekin.
 - Irakaslearen rol tradizionala, ezagutzen transmisioan zentratua, aldatzen ari da, horrela, irakasleen sostengu emozionalaren dimentsioa funtsezkoa bihurtzen da.
 - "Ezagutu zeure burua" gizakiaren helburuetako bat da, eta hezkuntzan presente egon behar du. Autoezagutza horren barruan, alderdi garrantzitsuenetako bat dimentsio emozionala da.
 - Hezkuntza pertsonen arteko harremanak ezaugarritzen duen prozesua da eta berez, pertsonen arteko harreman oro fenomeno emozional bezala beteta dago.
- Gizarte-egoerak:
 - Harreman sozialak gatazka-iturri izan daitezke eta gatazka horiek sentimenduei eragiten diete.
- Argudio psikopedagogikoak:
 - Gardnerrek (1995) adierazten duen bezala, eskolatzeko formalean hizkuntza-gaitasunetan eta gaitasun logikoetan soilik kontzentratzea iruzurra izan daiteke beste adimen batzuetan gaitasuna duten gizabanakoentzat.

2.3. Dantza haurren alderdi emozionalarekin daukan erlazioa.

Dantzak sentimenduak biziago bizitzeko aukera ematen du. Horren bidez, amorrua, tristura, alaitasuna, euforia, umorea, sentsualitatea, beldurra eta abar sentitu eta transmititu daiteke. (Castañer Balcells, 2000). Christensen et alen (2021) arabera, norberak sentitzen duena adierazten ez badu, mugimenduek ez luke zentzurik izan eta dantzak bere esentzia ez

luke izango, hots, mugitzen ari diren gorputzen bidez hunkitu, transmititu eta komunikatu. (Ortiz, Jimenez eta Priego, 2022).

Dantzak gorputzaren mugimen-aukerak garatzen eta mugimenduaren bidez sortzen eta komunikatzen diren sententzioak esploratzen laguntzen du. Beraz, mugimendua erabiltzean intentsitate desberdineko jardura fisikoa egiten da. (Ortiz, Jimenez eta Priego, 2022).

Galiana Lloretak Dantza eta Integrazioa artikuluan Pina Bauschen (dantzari alemaniarra, koreografoa eta dantza irakaslea) esaldi bat berreskuratu du: "Ez zait interesatzen gizakia nola mugitzen den, hunkitzen duena baizik" (Galina Lloret, 86 or). Esaldi horrek sentitzen duguna adierazteko behararen inguruan gogoeta egitera eragiten du, gorputza edo gorputz-hizkuntza erabiliz. Gainera, gorputzaren eta emozioaren artean sortzen den loturak egiten dugun horretan kontzientzia izatea ahalbidetzen du, horregatik, dantza tresna ona da trebetasun emozionalak garatzeko. (De Rueda eta López, 2013).

Dantzaren bilakaerak beste genero batzuk agertzea ahalbidetu du, hala nola; dantza modernoa eta garaikidea, sentitzen dena adierazteko askatasuna eskaintzen dutenak, muga fisikoak edo psikikoak alde batera utzita. Esparru honetan Butoh dantza dago, Kazuo Ohnok eta Tatsumi Hijikatak sortua. Inprobisazio teknikatik abiatzen da eta informazio sentesoriala erabiliz eta arreta gorputzaren sententzioetan ardaztuz mugimendua lantzen da, pentsamendua alde batera utziz. Mugimendu motelak, espasmoak eta muskulu-uzkurdurak ditu ezaugarri Lloret (2009). Zentzu horretan, dantzak emozioek sortutako barne-sententzioen kontzientzia areagotzen du. (De Rueda eta López, 2013).

Inprobisazioa, gure ideien edo emozioen bat-batekotasuna eta adierazpen-askatasuna garatzeko baliabide gisa izanik, dantzak erabiltzen duen beste baliabide bat da, subjektuaren ahalmenak eta sormena adierazteko aukera ematen duena. (Ortiz, Jimenez eta Priego, 2022).

Oro har, dantza mota gehienetan erabiltzen den metodologia ereduak imitatzeke edo erreproduzitzeko teknika tradizionalak dira (Cuéllar Moreno, 1998; de las Heras Fernández eta Espada Mateos, 2020; Requena Pérez eta Martín Cuadrado, 2015), berez, ikasleak irakaslearen jarraibideak betetzen ditu. Hala ere, dantzaren ezaugarria gorputzaren bidez emozioak adieraztea da, eta, beraz, adierazkortasuna teknikaren osagaitzat ere har daiteke (De Rueda Villén eta López Aragón, 2013). Gaur egun, jardueraren kalitatea mugimenduak behar bezala gauzatzera ez da mugatzen; barnetik adierazi nahi dena fisikoki zein subjektiboki interpretatzeak garrantzi handia du (Pérez Soto, 2008). Horretarako, Moreno

Bonilla (2006) artisten prestakuntzak sormena, sentsibilitatea eta nortasuna garatzea, eta metodologia dantzariaren garapen integralera bideratzea beharrezkoa dela dio (Ortiz, Jimenez eta Priego, 2022).

2.4. Dantza.

2.4.1. Dantza, psikomotrizitatearekin eta gorputz adierazpenarekin daukan erlazioa.

Kontuan hartuta dantza emozioak eta sentimenduak komunikatzeko musika (denbora), espazioa (desplazamenduak) eta gorputza (mugimenduak) batzen dituen adierazpen artistikoa dela, Haur Hezkuntzako etapan zehar zentzumen- eta mugimendu-garapena sustatzeko diziplinarik egokiena dela esan daiteke. (Cameron et al., 2020). Gainera, Gutierrezek eta Castillok (2014) diotenez, hezkuntza-esperientziek erakutsi dute dantza-praktika tresna egokia dela gaitasun psikomotorrak garatzeko. (Laura Abellán, 2021).

Dantza, urte askotan zehar, gorputzaren esperientzia fisiko globala adierazten duen artea izan da, horregatik garrantzia handia hartzen du; izan ere, gaur egun, dantza, adierazpen kinesiko gisa, gorputza erabiltzen ikasteko, zerbait komunikatzeko edo adierazteko tresna bideragarria izan daiteke. Horregatik, dantza pertsona baten barne-mundua gorputzaren bidez adierazteko modu ezin hobea dela esan dezakegu. (Rodríguez eta Madroñero, 2020).

Aurretik esandakoagatik, psikomotrizitateari eta gorputz adierazpenari, gorputz-hezkuntzako bi diziplina garrantzitsuak izanik, atal bat eskaintzea garrantzitsua iruditzen zait, dantzarekin lotura estua baitute.

2.4.1.1. Psikomotrizitatea.

Psikomotrizitatea, izenak argi eta garbi adierazten duen bezala, bi elementu erlazionatzen ditu: psikikoa eta motorra. Beraz, psikomotrizitatea ez da giza mugimenduaz arduratzen, baizik eta mugimenduaren ulermenaz. (Berruezo, 2008).

Psikomotrizitatearen esanahiari modu egokian heltzeko, hainbat egilek ematen dituzten definizioak aipatuko ditut: Berruezorentzat (1995), psikomotrizitatea esku-hartze hezitzailearen edo terapeutikoaren ikuspegi bat da, eta haren helburua gorputza erabiliz mugimen-, adierazpen- eta sormen-aukerak garatzea da. Muniainentzat, berriz

psikomotrizitatea hezkuntzaren, berreziketaren eta terapeutikaren diziplina da eta gorputzaren eta mugimenduaren bidez jarduten du bere osotasunean. (Pacheco, 2015).

Psikomotrizitatearen helburu orokorra norbanakoaren gaitasunak garatzea da, gorputzaren erabilerarekin, mugimenduaren, jarreraren, ekintzaren eta keinuaren bidez. Gorputzaren bidez subjektuaren gaitasunak eta ahalmenak garatu nahi ditu, alderdi guztietan (motorra, afektibo-soziala, komunikazio-linguistikoa, intelektual-kognitiboa). (Pacheco, 2015).

Hezkuntza psikomotorra garrantzitsua da, haurren garapen integralari laguntzen diolako; izan ere, ariketa fisikoek bizi-funtzioak bizkortzen dituzte eta aldartea hobetzen dute. Elizabeth Hurlocken arabera, Psikomotrizitate Hezkuntzak onura hauek dakartza (Pacheco, 2015):

- Osasuna sustatzen du: zirkulazioa eta arnasketa estimulatzen ditu, zelulak hobeto elikatzen eta hondakinak kanporatzen laguntzen du. Hezurak eta muskuluak ere indartzen ditu.
- Osasun mentala sustatzen du: Mugimen-trebetasunak garatzeak eta kontrolatzeak dakar eta haurrak gai sentitzea ahalbidetzen du; gogobetetzea ematen du eta tentsio edo emozio gogorak askatzen ditu. Bere buruarekiko konfiantzak autokontzeptuari eta autoestimuari laguntzen dio.
- Haurren independentzia bultzatzen du beren jarduerak egiteko.
- Sozializazioan laguntzen du, jolasak beste haurrekin partekatzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatzen baititu.

2.4.1.2. Gorputz adierazpena.

Gorputz adierazpena, gorputzaren mugimenduaren eta keinuen bidez mezu bat transmititzea litzateke eta, normalean, eremu artistikoetan erabiltzen da, hala nola dantzan. (Rodríguez eta Madroño, 2020).

Gorputz-adierazpena definitzea lan konplexua da, termino horri buruzko hurbilketa kontzeptualak askotarikoak baitira. Hala, egile asko gorputz-adierazpenaren kontzeptua aztertzen saiatu dira: (García, Pérez eta Calvo, 2013).

Patricia Stokoek (1994) dioenez, gorputz-adierazpenak ideiak eta sentimenduak adierazteko norberaren gorputz-eskemaz jabetzea, pixkanaka sentsibilizatzea eta gorputza erabat erabiltzen ikastea esan nahi du. Romerok (1999), bere aldetik, gorputza, mugimendua eta sentimendua diziplina baten oinarritzko tresnak direla dio. Diziplina horren aztergaia gizabanakoaren jokabide motorra da, eta helburu adierazgarria, komunikatiboa eta estetikoa du. Bukatzeko, Schinca (2000) adierazi duen moduan, gorputz-adierazpena gorputzaren erabilera aztertuz eta sakonduz norberaren hizkuntza aurkitzeko aukera ematen duen diziplina dela esan daiteke. (García, Pérez eta Calvo, 2013).

Zenbait egilek gorputz-adierazpenari hitzik gabeko hizkuntza deitu izan diote. Knappen arabera (1982), haurra, jaiotzean besteen aldetik jasotzen dituen hitzik gabeko seinaleak interpretatzen hasten da, eta gorputz osoa etengabe mezuak transmititzen eta jasotzen ditu. Argylek (1975), bere aldetik, hitzik gabeko seinaleen erabilera nagusienak, adierazten ditu; alde batetik, emozioak adieraztea eta pertsonen arteko jarrerak transmititzea eta bestetik, beste batzuei norberaren nortasuna aurkeztea, hizketan laguntzea eta esku-hartzeak, atzeraelikadura, arreta eta abar administratzea. Rozenskyk eta Feldmanek (1982), berriz, uste dute mugimenduaren ñabardurak eta xehetasunak modu objektiboan deskribatu eta kodetu daitezkeela, NVBen (non verbal behavior) bitartez, haurraren hitzik gabeko jokabidea behatzeko sistemak baitira. (Linares, 1990).

Hitzik gabeko hizkuntzarekin keinuen bidezko adierazpena oso lotuta dago. Keinuk gorputz-hizkuntza espresiboa osatzen duten elementuak dira. Wolfek (1966) honako keinu mota hauek daudela adierazten du, eboluzio-aldien arabera (Linares, 1990):

- Automatikoak edo erreflexuak: jaioberriarengan gertatzen dira, plazer- edo atsekabe-erreflexuekin (irribarrea, eskuaren sortze-erreflexua...).
- Emozionalak: Seigarren hilabete inguruan erreflexu mota hauek gertatzen dira: beldurra, jelskortasuna, inbidia, afektua, haserrea, tristura, alaitasuna...
- Proiektiboak: Sei urte inguruan haurrak arreta erakarri, kexatu eta azalpenak eskatu behar du eta, beraz, esku hartzeko keinuak egiten ditu (argitze-mugimenduak, eskaera, kontsolamendua...).
- Kontzientzia objektiboarena: pentsamendu abstraktura iristen denean, tentsio fisiko handiagoa sortzen da, eta, batez ere, eskuzko eta aurpegiko keinuetan islatzen da.

Gorputz adierazpena egoki aztertu ahal izateko gorputzaren inguruan mintzatzea garrantzitsua da, zehazki, gorputzaren lau alderdi hauen inguruan: gorputz-eskema, zentzu zinetesikoa, lateralitatea eta jarrera kontrola eta doikuntza.

Haurren garapenean gorputz-eskema eraikitzea funtsezkoa da, ekintza-aukeren abiapuntua delakoz. Defontaine-entzat (1978), gorputzaren eskema gure gorputzaz, haren atalen esperientziez, mugez eta mugikortasunaz dugun pertzepzio kontzientea da. Esperientzia horiek zentzumen-inpresioen bidez eskuratzen dira eta hauek berezkoak edo kanpokoak izan daitezke. Vayer (1974) autorearen ustez, berriz, gorputz-eskema mezu, estimulu eta ekintza guztien sintesia da, haurrak kanpoko mundutik bereizteko eta bere nia eraikitzeko aukera izateko. Bere jatorria sentsazio zinetesiko, ukimen eta bisual guztietan manipulatu izatearen esperientzian datza. (Arnáiz eta Lozano, 1992).

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, gorputz-eskema norberaren gorputzaz, mugitzeko gaitasunaz, segmentazioaz, espazioko aukerez eta okupazioaz eta mugez ditugun irudi mentalen multzoa da. (Arnáiz eta Lozano, 1992).

Gorputz-eskemaren formazioa haurtzaroan zehar etapa ezberdinetatik igarotzen da. Hurrengo taulan haurren gorputz-eskema denboran zehar nola garatzen den ikus daiteke (Herminia Maria Garcia, 1997):

2. taula.

Gorputz eskemaren formazioa etapa ezberdinetan.

<i>ETAPA</i>	<i>GORPUTZ-ESKEMAREN FORMAZIOA</i>
Bizitako gorputzaren etapa (0-3 urte)	<ul style="list-style-type: none">• Portaera motor globala dauka.• Amaren eta haurren arteko elkarrizketa tonikoaren bidez, ibilaldiaren lehen erreflexuetatik lehen koordinazio eragileetara igarotzen da.• Esperientzia praxiko globalaren bidez inguruaren bereizketa progresiboa egiten du.• Haurra burua zuzentzen eta mugitzen hasten du.
Pertzepzio-diskriminazioaren etapa (3-6 urte)	<ul style="list-style-type: none">• Pertzepzio sinkretikoa garatuta dauka.• Motrizitateak eta sinestesiak bere gorputzaren eta bere atalen kontzientzia handiagoa izatea ahalbidetzen diote.

Pertzepzio-diskriminazioaren etapa (3-6 urte)	<ul style="list-style-type: none"> ● Tonu-erregulazio eta jarrera-doikuntza handiagoa dauka. ● Orientazio tonikoa eta jarrera-doikuntza hobeto menderatzen du. ● Gorputzaren irudikapen topologiko ona dauka.
--------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Oharra. Gorputz eskemaren formazioa etapa ezberdinetan, Herminia Maria Garcia, 1997. Liburua

Gorputzarekin erlazionatuta dagoen beste alderdi bat seigarren zentzua edo zentzu zinestesikoa deritzona da. Zentzu honek atsedenean edo mugimenduan dagoen gorputzari buruzko informazioa ematen du, hala nola, artikulazioen posizioan gertatzen diren aldaketei, mugimenduaren zabaltasunari, tentsioari, erlaxazioari... buruzko informazioa ematen du. Informazio hori muskuluetan, tendoietan eta larruazalean dauden zentzumen-erzeptoreek ematen dute. Zentzumen honek, ikasleei elkar hobeto ezagutzen eta mugimenduan trebeagoak izaten lagun diezaieke. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Lateralitateari dagokionez, Trigueros eta Rivera (1991), giza gorputzaren alde batek beste baten gainean duen nagusitasun funtzional gisa definitzen dute; zehazki, gizabanakoek begi edo atal jakin batez baliatzeko duten lehentasunean adierazten da, zehaztasuna eskatzen duten eragiketak egiteko. (Arteaga, Conde eta Viciano, 1997).

Bukatzeko, Castañer eta Camerinoren arabera (1993), jarreraren kontrola eta doikuntza gorputza kontrolatzeko eta jarrera egokia berreskuratzeko gaitasuna da, faktore desorekatzaile batek esku hartu ondoren. Autore hauek jarreraren kontrolaren eta doikuntzaren barruan, honako osagai hauek daudela adierazten dute (Arteaga, Conde eta Viciano, 1997):

- Tonizitatea: Oinarrizko muskulu-tonua, jarrera-tonua eta ekintza-tonua
- Posturalitatea.
- Oreka: Oreka estatikoa eta oreka dinamikoa.

2.4.2. Dantzaren kontzeptua.

Dantza, diskurtso dinamiko eta keinuzko bat erakusten duen jardura da, pertsonaren emozio-, irudimen-, fantasia-, onarpen- edo erdi-kontzientzia-dimentsioekin lotzen dena. Beraz, dantza sententzioak eta emozioak agerian utz ditzaketan jardura bat dela azpimarratu daiteke. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Dantza kultura guztien parte izanik, historian zehar forma espresibo eta artistikoak asko izan ditu. Zentzu honetan, dantza definitzea lan konplexua da, kontzeptu hurbilketak eta erlazioak askotarikoak direlako. (Herminia Maria Garcia, 1997). Jarraian, hainbat egilek dantzari buruz ematen dituzten definizio batzuk aipatuko ditut.

Willem (1985, 5 or.) honela definitzen du dantza: “Mugimenduan dagoen gorputza hizkuntza adierazkor gisa erabiltzen duen artea da”. Smith eta Filson (1991, 15-16 or.), ordea, dantza honela definitzen dute (Herminia Maria Garcia, 1997):

Muskuluen jarduera espontanea emozio biziren baten eraginpean, hala nola, gizarte-poza edo erlijio-gorespena. Mugimendu harmonikoen konbinazio gisa ere defini daiteke, ariketa horrek soilik dantzariari edo berari begira dagoenari ematen dion plazeragatik egiten dena. Arretaz entseatutako mugimenduak dira, eta dantzariak beste pertsona batzuen ekintzak eta grinak irudikatu nahi ditu.

Quebec (1981, 77or.), bere aldetik, dantza “mugimenduak sortzeko eta ordenatzeko artea da, garai eta leku jakin bati lotutako barne-antolaketaren printzipioen arabera (konposizioa mugimenduetan bertan) eta egituren arabera (mugimenduak elkarren artean antolatzea), mezu literal bat esperimintatzeko eta komunikatzeko, ballet-a bezala”. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Oro har, dantza giza jarduera gisa defini daiteke; unibertsala da, Gizateriaren Historia osoan zehar hedatzen delako eta bi sexuetan eta adin guztietan ikusten delako; motorea ere, giza gorputza teknika espezifikoek bidez ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazten dituelako; polimorfikoa baita ere, era askotara aurkezten delako, eta honela sailka daitekeelako: arkaikoa, klasikoa, modernoa, herrikoa...; balioaniztuna ere bai, hainbat dimentsio dituelako: artea, hezkuntza, terapia eta aisialdia; eta konplexua da, hainbat faktore erlazionatzen dituelako: biologikoak, soziologikoak, historikoak, psikologikoak, moralak, geografikoak, estetikoak... eta, baita adierazpena eta teknika uztartzen dituelako. (Herminia Maria Garcia, 1997).

2.4.3. Dantzaren historia.

Dantza giza komunitate ororen berezko eta lehen mailako adierazpena da, eta hainbat ikerketa-iturriren arabera (Woisen, 1974; Bateson, 1973; Waldeen, 1982), dantzaren lehen adierazpenak erritual-espazioetan egin ziren. Erritual espiritualetan gizabanakoak bere

parekoekin eta naturaz gaindikoarekin komunikatzeko beharra sentitzen zuten. (Castañer, 2002).

Denborarekin, zentzu espirituala indarra galtzen joan zen dantzaren adierazpen kulturalen aurrean. (Castañer, 2002).

Egiptoren historiaren jatorrian musika eta dantza sakratuak ziren, hileta-kultuari lotuta baitzeuden. Dinastietatik dantza-eszenak grabatzen zituzten armetan eta lehen hilobietan eta dantzariak ia biluzik dantzatzen zuten, gardenki doitutako arropak jantziz. (Urtiaga de Vivar, 2017).

Grezia klasikoan, berriz, dantza jokoekin erlazionatuta agertzen zen, zehazki olinpikoekin. Hauetan, dantza koralen modalitate ezberdinak zeuden, "Dionisiako Handiak" deiturikoak kasu, zalgurdi, erritu eta dantzen bidez egiten zirenak. (Urtiaga de Vivar, 2017).

Mendeek aurrera egin ahala, dantza hobetzen joan zen, eta Erdi Aroan forma estetiko, erritmo eta mugimendu berriak hartu zituen. Garai hartan, tradizio paganoetan oinarritutako dantzak ematen ziren eta landa-ingurunean dantza herrikoa praktikatzen zen harreman sozialerako eta dibertitzeko modu gisa. (Urtiaga de Vivar, 2017).

Erdia Aroaren geroztik, Errenazimendu garaia eman zen, hau Italian hasi zen, Florentzian hain zuzen ere. Errenazimendua Medicis familiaren adierazpen artistikoei esker eman zen, perspektiba garatzearekin, ondare klasikoak berreskuratzearekin eta humanismoa bilatzearekin batera. Garai honetan ballet-a ikasten eta burutzen hasi zen. (Urtiaga de Vivar, 2017).

XVIII. mendean Greziako eta Erromako dantzen eraginak berreskuratu ziren, estilo neoklasiko berri bat sortuz. Garai horretan, dantza profesionalizatu egin zen, eta haren printzipioak ordena, oreka, harmonia, simetria, zehaztasuna... izan ziren. (Urtiaga de Vivar, 2017).

Mende horren bukaeran, Aro Garaikidea hasi zen. Garai hartan, Ingalaterran eta Alemanian erromantizismoa eman zen eta horrekin ballet estilo berri bat sortu zen, "ballet erromantikoa" izenekoa, punta-puntako zapatilek erabiliz eta jauziekin teknika berriak sartuz. (Urtiaga de Vivar, 2017).

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, Estatu Batuak gune kultural eta artistiko berri gisa finkatu zen. Gaur egungo erritmo eta dantza gehien jatorria izan zen eta jarduera artistiko handia sortu zen: manifestuak eta mugimenduak, estilo aldaketak... Arteak iraultza handia bizi izan zuen, eta horren froga adierazpen-dantza, dantza askea, dantza modernoa... izan ziren. Korrante berri horiek dantza-urrats gehiago, dantzarien arteko kontaktu handiagoa, koreografia berri arriskutsuagoak... ekarri zituzten eta dantza ariketa espazio ez-konbentzionaletan egiten zen. (Urutiaga de Vivar, 2017).

Aurrekoa aztertuta, esan daiteke historiak dantzaren bilakaeran eragina izan duela, bere zentzu erlijiosoa alde batera utziz eta helburu estetiko eta dibertigarrian aurrera eginez. Beraz, dantza eta espazio eszenikoak bilakaera historiko baten eta etengabe aldatzen ari diren zibilizazioen emaitzat hartu behar dira, beren erritu erlijiosoekin, tradizioekin, gizarte-harremanekin... (Urutiaga de Vivar, 2017).

Dantzak ikuskizun berritzailea izan behar du, garai berriekin bat datozen elementu espresibo, erritmiko eta tekniko berriak eta antzezpen-espazio berriak gehituz. (Urutiaga de Vivar, 2017).

2.4.4. Dantza motak.

Aurreko atalean ikusi den moduan, historian zehar dantza-mota ezberdinak sortu egin dira, horietako asko gaur egun arteko joerak izanik. Hauek joera horietako batzuk dira (Herminia Maria Garcia, 1997):

- Folklore-dantzak: Gizarte baten kultura-ondaretik abiatuta sortzen dira. Ondare horretan gizarte jakin bat bere gustuak, ideiak, hizkuntzak... ezartzen joan da. Dantza folklorikoetan pertsona ugari batzen dituen koreografia bat osatzen da, erritmoaren jarraipen komun eta zehaztua eginez eta espazioan konposizio eta irudi jakin batzuk osatuz. Normalean, dantza hauek gertaera sozial, historiko edo kultural batekin lotuta daude, adibidez, arau sozialen aldaketa batekin.
- Dantza etnikoak: Dantza mota hauek munduko hainbat eremu geografiko naturalen adierazpenak dira, inguru horietako biztanleen ezaugarri bereizgarriekin bat datozenak. Dantza hauen artean afrikar dantzak, hindu dantzak, ekialdeko dantzak... aurkitu daitezke. Oro har, Afrikako dantzetan inprobisazioak garrantzi handia du, animalien edo ingurune naturaleko elementuen imitazioak eginez. Dantza mota

honekin batera doazen erritmoak oso markatuak izaten dira, erritmo aldaketekin eta kadentziekin jarraipen efektu bat sortuz.

- Dantza klasikoa edo Ballet-a: Dantza klasikoaren gorputz teknika bertikaltasuna eta aire-mugimenduak bilatzen dituzten birak eta jauziak egiteaz oinarritzen da. Gorputzaren teknika horrek, alde batetik, sei oin-posiziotan oinarritzen da; lehenengo bostek aldaka kanporantz irekitzea eskatzen dute (en dehors), eta seigarrenak, berriz, oinak elkartuta eta aldaka itxita mantentzea eskatzen du, hau oinetako puntadunen gainean altxatzeko bakarrik erabiltzen da.
- Dantza garaikidea: Dantza mota hau dantza klasikoaren eraginez sortuz izan da. Dantza honen esentzia sentsazioen, sentimenduen eta emozioen adierazpenean eta interpretazioan oinarritzen da eta dantzari bakoitzaren ekarpen pertsonala eta dantza-estiloa garrantzitsua da. Azkenik, dantza mota honetan publikoaren hainbat erreakzio edo emozio bultzatzea bilatzen da, baita, batzuetan, parte hartzera bultzatuz ere.
- Dantza modernoa: Dantza mota honek, alde batetik, mugimenduaren eta gorputz-keinuaren zehaztasun handiena aurkitzen saiatzen da dantza klasikoaren mugimendu espezifikoaren bidez, hala nola; pliés, relevés, battements, passés etab. Bestetik, gorputz-mugimendu berriekin esperimentatzea bilatzen da, hanken paralelo-posiziotik abiatuta. Lurretik hurbil egotea ere bilatzen da, gorputzaren grabitate-zentroa jaitsiz. Azkenik, gorputzaren segmentu desberdinetatik isolatutako lan bat lortu nahi da, apur bat robotizatuak eta artikulazio eta segmentuetatik bereizitako mugimendu angelutsuak bilatuz.

2.4.5. Dantzaren elementuak.

Dantzaren jardueran mendeko hainbat elementu aurkitzen ditugu, egin beharreko jarduera fisikoan eragina izan dezaketenak. Atal honetan honako elementu hauek azalduko ditut: Espazioa eta denbora, malgutasuna eta erlaxazioa.

2.4.5.1. Espazioa eta denbora.

Ekintza eragile oro espazioan eta denbora batean gertatzen dira. Horri dagokionez, Sousak (1980, 60 or.) dantza “espazioaren eta denboraren artetzat” jotzen du. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Espazioaren gaia lantzeko, hurrengo kontzeptu batzuk azpimarratu behar dira, horiek dantzaren gaiari heldzerakoan kontuan hartu behar baitira: (Herminia Maria Garcia, 1997).

- Pertzepzioa: Pertzepzioaren bidez gizabanako batek bere modalitate sentsozialek ematen dioten informazioa antolatzen du, ondoren aurreko esperientzien bidez interpretatzen eta osatzen ditu.
- Espazioa: Fleming-en arabera (1976), espazioa norbanakoa mugitzen den eremua da. Espazioan gertatzen den edozein mugimendu denbora propioa dauka eta norbanakoak erabiltzen duen energiak determinatzen du.
- Pertzepzio espaziala: Objektuen eta prozesu sentsozialen bidez iristen zaigun informazioaren arteko harremanaren emaitza da.
- Orientazio espaziala: Objektuei dagokionez gure gorputza espazioan kokatzeko edo gure posizioaren arabera objektuak lokalizatzeko gaitasuna da.

Hurbileko espazioa eta espazio eszenikoa, orokorra edo urrutikoa espazio motak dira. Hurbileko espazioak gorputza inguratzen duen eremuari egiten dio erreferentzia. Eremu hori arakatu egin daiteke euskarri-oinarria mugitu gabe. Rudolf von Labanek (1989, 89. or.) "kinesfera" deitzen dio espazio horri. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Espazio eszenikoa, orokorra edo urrunekoa, ordea, dantzariak joan-etorriak egiteko eta bere keinua proiektatzeko duen eremua da. Dantzariak espazio eszenikoan egin ditzakeen formak amaigabeak dira, elementu hauek konbinatzean lortzen diren konposizioak kontuan hartzen badira. (Herminia Maria Garcia, 1997):

- Mailak: Plano horizontaletan egiten diren espazioaren banaketak dira, dantzariak lurretik urruntzeak duen altueraren arabera, adibidez, jauziak (maila altua), ibiltzea (erdiko maila) edota etzanda egotea (maila baxua).
- Planoak: Mugimenduen zabaltasuna eta norabidea hiru planotan deskribatzen dira: aurrealdea, sagitala eta zeharkakoa. Hiru plano horien arteko elkargunea ardatza da.
- Norabideak: Mugimenduari edo pertsona bat espazioan orientatzeari egiten dio erreferentzia.

- Ibilbidea: Gorputz baten atala espazioan egiten duen joan edo etorriaren lerroa da. Robinsonek (1981) espazio-eboluzioen oinarrizko ibilbideak beren berezko adierazpen-balioekin lotzen ditu: zirkulua, perpendikularra, paraleloak, sigi-sagak eta espiralak.
- Egiturak: Talde bateko kideen banaketa da. Egiturak koreografia batean egin daitezke. Egituren hiru oinarrizko formazio daude: egitura librea, egitura linealak eta egitura zirkularrak.
- Fokua: Begiradak bat egiten duen edo ekintza motorrak norantz egiten duen adierazten duen espazioaren puntu jakin bat da. Fokuak oreka eskatzen duten mugimenduetan zeregin garrantzitsua du.

Elementuekin jarraituz, denbora-antolaketan haurrak bialdi igarotzen ditu: aurre-operatiboa eta operatiboa, izan ere lehenengoa landuko dut soilik, Haur Hezkuntzari dagokiona. Aldi aurre-operatiboan, denbora-harremanak espazio-harremanen mende jartzen dira, eta gertaeren serie kronologikoak eta logikoak ezartzeko zailtasuna dago. Haurrak iraupena aztertzen du ekintzan lortu duen emaitzari dagokionez; urrunago joanez gero denbora gehiago beharko du, abiadura edozein dela ere (Herminia Maria Garcia, 1997).

Erritmoa denborari estuki lotuta dagoen fenomeno bat da. Le Boulch (1978, 200 or.) erritmoa "denbora-fenomenoen antolaketa edo egituraketa" bezala definitzen du eta Rigalenzat (1987, 57 or.) aldiz, erritmoa "egitura ordenatu baten errepikapen erregularra edo aldizkakoa" dela aipatzen du. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Erritmoa mugimenduarekin lotura estua dauka. Lamourrek (1985) erritmo motorren sailkapena egiten du, sei mugimendu-taldetan antolatuta (Herminia Maria Garcia, 2005):

- Aldizkako mugimenduak: Aldizkako azentuazioak dituen ekintza oro. Adibidez, ibiltzea, korrika egitea, txalo egitea...
- Egitura errepikakorrak: Mugimenduaren erreproduzio zehatza iraupenaren eta intentsitatearen ezberdintasun kualitatiboekin.
- Egitura ez-errepikakorrak: Denbora konstantean baina serie berdinetan errepikatu gabeko mugimenduak. Adibidez: dantza klasikoa, izotz gaineko patinajea...

Dantza emozioak lantzeko tresna gisa Haur Hezkuntzan

- Aldizkako egiturak: Subjektuaren motrizitatean elementu errepikakorrak zehaztu gabeko ariketa guztiak. Adibidez: taldeko kirolak.
- Infra-erritmoak: Iraupen laburreko mugimendu guztiak. Adibidez: disko-jaurtiketa.
- Jarrerak: Denbora luzeaz edo motzez mugiezintasunaren bidez egindako ariketa guztiak. Adibidez: yoga.

2.4.5.2. Malgutasuna.

Dantzan aritzean, malgutasuna rol garrantzitsu bat betetzen du. Malgutasuna, berez, artikulazio batean edo artikulazio-multzo batean zabaltasun handiko mugimenduak egitea ahalbidetzen duen gaitasuna da. Beraz, malgutasunak artikulazioen mugikortasunaren eta muskuluen elastikotasunaren arteko lotura dakar. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Malgutasunaz hitz egiten dugunean bi mota ezberdin daudela azpimarratzea garrantzitsua da; alde batetik, malgutasun estatikoa, borondatezko muskulu-uzkurdurarik ez dagoenean, eta bestetik, malgutasun dinamikoa, borondatezko muskulu-uzkurdurarik dagoenean. (Elena Plaza, 2019).

Malgutasuna funtsezko osagai hauen menpe dago. (Herminia Maria Garcia, 2005):

- Artikulazio-mugikortasuna: Artikulazioaren hezur-segmentuek duten desplazamendu-ahalmena da.
- Muskuluen elastikotasuna: Muskuluak deformatu ondoren bere ohiko posiziora itzultzeko duen gaitasuna da.
- Indarra: Ikuspegi funtzionaltik malgutasuna mugatzen du. Grabitatearen indarraren kontrako mugimenduak malgutasunaren faktorerik erabakigarriena da.

Haur-hezkuntzako etapan, hurrek aparatu motor aktiboa, aparatu motor pasiboa, muskulatura, tendoiak eta lotailuak elastikotasun handiarekin dituzte, eta hezur-sistema eta artikulazioa, sendotzen hasten da. Ariketak eta jarduera fisikoak beharrezkoak dira malgutasunari eusteko. Etapa honetan, hurrek egiten dituzten jarduerak dinamikokoak, globalak eta askotarikoak izan behar dute. (Herminia Maria Garcia, 1997).

2.4.5.3. Erlaxazioa.

Erlaxazioak kontzientzia-egoera bat errazten du, ezaugarri hauek dituen: tonu muskular baxua, bihotz-erritmoa eta arnasketa-erritmoa gutxitzea, kontzentrazio hobea edukitzea eta kanpoko pertzepzio-gaitasuna eta pertzepzio-gaitasun interozeptibo eta propiozeptibo handiagoa. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Jardunari dagokionez, dantzaren irakaskuntzan, erlaxazioarekin haurrak bere gorputza hobeto ezagutzea, muskuluak hobeto kontrolatzea, gorputzaren eremu espezifikoetan tentsioak aurkitzeko gaitasuna izatea eta pisuaren, kontaktuaren, orekaren, egoera emozionalaren eta abarren nozioa hautemateko gai izatea lortu nahi da. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Dantzari aplikatutako erlaxazio-metodoen helburu nagusia gorputz-eskemaren ezagutza eta bizipena lortzea da, irizpide interozeptibo eta propiozeptiboetatik abiatuta. Dantzaren alorrean aplika daitezkeen erlaxazio metodoen barruan, Alexanderren Eutonia (1983) dago. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Alexanderren Eutoniak tonu orekatua lortu nahi du, subjektuak une bakoitzean duen egoerara eta unera harmonikoki egokitua. Muskulu-tonuari eta norberaren gorputzaren kontzientzia hartzeari garrantzi handia ematen dio. (Herminia Maria Garcia, 1997).

Gorputzaren kontzientzia hartzeko, espazioan hainbat posiziotatik abiatzen da, eta zoruarekin kontaktuan dauden puntuen, hutsuneen, zati gogorren, tentsioen eta abarren sentazioak aztertzen ditu, hainbat objektuekin (makilak, pilotak...). (Herminia Maria Garcia, 1997). Lanean zehar hartutako kontzientzia mugimenduetan integratzen da: luzatze desberdinak, gorputz-atalek espazioetatik abiatuz egindako jolas funtzionalak, etab. (Herminia Maria Garcia, 1997).

2.4.6. Dantzaren onurak haurrengan.

Haur-dantza ordezkazina da, gorputz-mugimendua banakako adierazpide gisa egiten den jarduera bakarra baita. Haurrak, dantzaren bidez, bere ahalmen guztiak martxan jartzen ditu, eta, gainera, dantzarekin haurra ez da helburu batera iristeaz arduratzen; gorputza mugitzeaz arduratzen da soilik. (Lin Durán, 1995).

Ikuspegi fisikotik, dantzak haurren mugimendu-ahalegin guztiak bere bizitzarekin lotutako jardura mekaniko-praktikoak egitera bideratzen dio gehien bat. Gainera, dantzak ariketa globalagoa eskaintzen du, elementu lehiakorrik gabea (Laban, 1978; Ossona, 1984). Fuentesek (2006), eremu fisikoan, honako ekarpen hauek nabarmentzen ditu: oinarrizko trebetasunak eta mugimen-zeregin espezifikoak eskuratu eta garatzen dira eta pertzepzio-eta mugimendu-trebetasunak eta gorputzaren ezagutza eta kontrola garatzen da. (Nicolás, Ureña, Gómez eta Carrillo, 2010).

Haurrak taldeka dantzatzeko direnean, motibazio komun batetik abiatuta, koordinatua eta erritmikoa den taldearen indarra parte-hartzaile bakoitzaren ahaleginen batura baino indar handiagoa da. Indar horrek segurtasun eta kohesio sozial handiagoa ematen dio haur komunitateari. Dantzak, beraz, gizabanakoen arteko sozializazio-prozesuan laguntzen du, izan ere, horren bidez gizarte jakin batek onartutako mugimendu-ereduak eskuratzen dira, eta, baita gorputz-kontaktua, talde-koordinazioa, komunikazioa eta adierazpena egotea dakar ere. (Lin Durán, 1995).

Gainera, dantzarekin haurrak bere buruari buruzko gauza asko deskubritzen ditu: gorputza, adimena, pentsamenduak, ideiak... Baita, dantza adierazpen pertsonalerako bitarteko gisa erabiltzen da ere, jada haurri, dantza bakarka praktikatzeko duenean, bere burua aztertuta sentitu gabe nahi den moduan adierazteko, eta bizitza erreal edo imajinarioaren ideia, sentimendu, esperientzia eta irudikapenei forma emateko aukera ematen dio. (Lin Durán, 1995).

Dantzak erakusten dio haurri gorputzaren kontzientzia eta bere mugimenduen kontrola. Ikaskuntza horrek jolasetarako, kirolerako eta eguneroko bizitzarako balio diezaiokete, baita bere pertzepzio sentikorra zabaltzeko ere; batez ere, gorputz-hizkuntza hitzeko hizkuntzarekin lotzen ikasteko. (Lin Durán, 1995).

Bukatzeko, eremu intelektualean, dantza alderdi historikoak, sozialak, kulturalak eta artistikoak ezagutzeko erabil daitezke. Ariketa fisikoan, gogamenak mugimendua zuzentzen du, dantzan, alderantziz litzateke, mugimenduak gogoaren jardura estimulatzen du. (Nicolás, Ureña, Gómez eta Carrillo, 2010).

3. JUSTIFIKAZIOA CURRÍCULUMAREKIN LOTUTA

Aurrerago azalduko dudako proposamen didaktikoa justifikaturik dagoela egiaztatzeko *61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur*

Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumera joko dut, honetan azaltzen diren alderdiak nire proposamenarekin lotura eginez.

Hasteko, curriculumeko 7.artikulua, printzipio pedagogikoak, honako hau aipatzen du: *Etaparen honen bi zikloetan, modu progresiboan landuko dira garapen afektiboa, kudeaketa emozionala, mugimendua eta gorputza kontrolatzeko ohiturak, komunikazioaren eta hizkuntzaren adierazpenak eta elkarbizitzaren eta harreman sozialen oinarrizko jarraibideak [...].*

Ikus daitekeenez, atal honek alderdi emozionala eta alderdi motorra garrantzi berarekin deskribatzen ditu. Nire proposamenean bi alderdien garrantzia ere islatu nahi izan dut, diseinatutako saioetan biak maila berdinean landuz, baita bi alderdi horien arteko lotura azpimarratuz ere.

Bestalde, etapa honen helburuetako bat *beren gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea, eta helduekin nahiz beste hurrekin lotura seguruak ezartzea* da. Gainera, funtsezko kompetentzien artean kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, honako hau aipatzen du: *Bereziki garrantzitsua da haurrak hastea beren emozioak eta sentimenduak ezagutzen, adierazten eta modu progresiboan kontrolatzen, bai eta besteen emozioak eta sentimenduak identifikatzen aurrerapausoak egitea ere, ulermen eta enpatia jarrerak garatzearekin batera.*

Proposamenaren lehenengo bi saioak hurrek emozioak ezagutzen eta identifikatzen has daitezen diseinatuta daude. Izan ere, hurrengo saio askok haur bakoitzak bere emozioak adierazten ikas dezaten ez ezik, besteengan emozioak atzeman dezaten eta identifikatzen has daitezen ere lantzeko erabilgarriak izango dira, enpatia eta emozioen ulermen gaitasunak garatzen lagunduko dienak.

Lehenengo arloan, Harmonian haztean, hurrengo ebaluazio irizpidea azpimarratu nahi dut:

3. taula.

Lehenengo arloko 2.1. ebaluazio irizpidea.

BIGARREN ZIKLOA
<i>2.1. Bere beharrak eta sentimenduak identifikatu eta adieraztea, eta bere emozioen kontrola modu progresiboan doitzea.</i>

Lehenengo arloko 2.1. ebaluazio irizpidea, 2022.

Lehen adierazi dudan bezala, diseinatutako proposamenaren bidez haurrak emozioak ezagutzen hastea eta emozioak identifikatzen jakitea lortu nahi da, ez bakarrik bere baitan, baita besteengan ere. Horrekin batera, haurrek beren emozioak ulertzea eta onartzea lortu nahi da, baita emozio txarrak izanik ere, eta horrek pixkanaka-pixkanaka beren emozioen kontrola lortzen lagunduko die.

Oinarrizko jakintzetan, garapen eta oreka afektiboaren barruan hau azpimarratzen dut:

4. taula.

B.1. oinarrizko jakintza

<i>BIGARREN ZIKLOA</i>
<i>B.1. Norberaren emozio, sentimendu, bizipen, lehentasun eta interesen gaineko kontzientzia emozionala, adierazpen oro errespetatuz.</i>

Oharra. B.1 oinarrizko jakintza, 2022. Webgunea.

Diseinatu ditudan saioak bereziki haurrak haien emozioak modu osasuntsu batean adieraz dezaten helburuarekin sortu izan ditut. Eta saio guztietan zehar taldearen kohesioa baita haien arteko errespetuzko jarrerak garatzea lortu nahi da, haur bakoitzaren adierazpideak kritikatuak edota epaituak direla sentitu gabe.

Emozioen atalarekin bukatzeko, hirugarren arloko, errealitatea komunikatzea eta adieraztea, hurrengo ideia azpimarratu nahiko nuke, zehazki lehenengo konpetentzia espezifikokoaren barruan aurkitzen dena: *Komunikaziorako asmoa estimulatzea eta sustatzea lagungarria da hainbat gaitasun baliatzeko eta haien bidez besteen mezuak interpretatu eta ingurunearekin interakzioan aritzeko, bere beharrak, emozioak, sentimenduak edo ideiak adierazteko, betiere ongizate eta segurtasun emozional eta afektiboko giroan.*

Haurrak haien sentimenduak eta emozioak adierazteko komunikazioa erabiltzea ezinbestekoa da eta hori diseinatu izan ditudan hainbat jardueretan landu nahi izan dut, gainera erabiliko duten komunikazio mota ez da gorputz-komunikazioa soilik izanen beste komunikazio adierazpenak erabiliko dituzte ere, adibidez: hitzekoa eta plastikoa.

Dantzari dagokionez, Haur Hezkuntzako bigarren etapan oso erreferentzia gutxi aurkitzen dira. Hirugarren atalean, oinarrizko jakintzen artean, honako hau aurkitzen dugu: Gorputz hizkuntza eta adierazpena:

5. taula.

H.3. oinarrizko jakintza

<i>BIGARREN ZIKLOA</i>
<i>H.3.Dantza mota eta generoetara hurbiltzea.</i>

Oharra. H.3. oinarrizko jakintza, 2022. Webgunea

Sortutako hainbat saioetan, zehazki bigarren, laugarren eta bosgarren saioetan, dantza mota ezberdinak landuko lirateke: dantza etnikoak, dantza folklorikoak eta dantza garaikideak.

Ikus daitekeenez dantzari buruzko erreferentzia handirik ez dira aurkitzen, horregatik gorputz-adierazpenarekin lotutako alderdiak azpimarratuko ditut; izan ere, lehen esan dudan bezala, dantza gorputz-adierazpenerako modu bat da, eta, beraz, arlo horri buruzko alderdiak dantzari lotuta daude.

Hasteko, Haur Hezkuntzako etaparen beste helburuetako bat *norberaren gorputza eta ikaskideena deskubritu eta ezagutzea, bai eta gorputzaren ekintzarako aukerak ere, eta desberdintasunak errespetatzen ikastea* da.

Nire ikuspuntutik, dantza praktikatzan duen pertsonari bere adimenarekin konektatzen laguntzen dio, baita bere gorputzarekin ere, gorputzaren aukerak eta mugak ezagutzeko eta bere gorputzeko atal bakoitzaren kontzientzia izateko aukera ematen baitio. Hori izan da dantzaren gaia aukeratzeko arrazoietako bat, jada jarduera fisiko honek ez baitu mugimendua mugatzen, gure gorputzeko atal guztiak mugitzera eramaten gaitu. Beraz, nire proposamenean jarduera askotan haurrek dantzaren bitartez beren gorputz osoa mugitzeko aukera izango dute, besteekiko eta haien gorputzarekiko errespetua sustatuz.

Hirugarren arloaren barruan, errealitatea komunikatzea eta irudikatzea, honako aipamena azpimarratzen dut: *Azkenik, gorputz hizkuntzak ahalbidetzen du adierazpenerako aukera berriak deskubritzea, komunikatu edo irudikatze asmoarekin edo asmo estetikoarekin erabil daitezkeenak. Baita, arlo berean ere, hirugarren konpetentzia espezifikoren barruan hurrengo aipatzen da: Lehen etapetan, mezuak sortzea eta igortzea kontaktu behararekin eta oinarri-oinarrizko beharren asetzearekin lotuta daude; gorputz eta keinu hizkuntza funtsezkoena da aurreneko komunikazio ekintza horretan.*

Beraz, horri dagokionez, haurrentzat barruan daramatena adierazi ahal izateko gorputz-adierazpena erabiltzea beharrezkoa da. Diseinatu ditudan saio gehienak horretan zentratuta daude, gorputz-adierazpenaren bidez, batez ere dantzaren bidez, haurrek beren emozioak adierazteko aukera izan dezaten.

Hirugarren kompetentzia espezifiko horren barruan aurkitzen diren ebaluazio irizpideen artean, hurrengoa azpimarratu nahiko nuke:

6. taula.

Hirugarren arloko 3.6. ebaluazio irizpidea

<i>BIGARREN ZIKLOA</i>
<i>3.6. Harmoniaz doitzea bere mugimendua besteen mugimenduaren eta espazioaren arabera, gorputz adierazpen libretzat hartuta, interesa eta ekimena adieraziz.</i>

Oharra. Hirugarren arloko 3.6. ebaluazio irizpidea, 2022. Webgunea

Haurren adierazpen libreari garrantzia nabaria eman diot nire proposamenean. Haurrak beren grinak jaiotzen zaien moduan adieraztea ezinbestekoa da, haien autonomia sustatu ahal izateko eta beren mugimenduak aske direla sentitzeko.

Amaitzeko, hirugarren arlo honen barruan, gorputz hizkuntza eta adierazpena deitzen den oinarritzko jakintzan hau azaltzen da:

7. taula.

H.2. oinarritzko jakintza

<i>BIGARREN ZIKLOA</i>
<i>H.2. Gorputz adierazpeneko eta adierazpen dramatikoko jolasak</i>

Oharra. H.2. oinarritzko jakintza, 2022. Webgunea

Nire ideia nagusia gorputz-adierazpena dantzaren bidez lantzea izan da, izan ere saio batzuetan gorputz-adierazpeneko jolasak edo jarduera ezberdinak ere gehitu ditut; adibidez, ispilua izeneko jolasa. Etapa honetan jolasa oso garrantzitsua da, horregatik nire proposamenean jolasak ezartzea ezinbestekoa ikusi nuen.

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Diseinatu dudan proposamena zazpi saioz osatutako unitate didaktiko bat da. Honetan haurrek dantzaren bitartez bereziki, baita beste gorputz-adierazpide batzuen bidez emozioak lantzeko aukera izango dute. Proposatutako jarduerekin haurrek emozioak ezagutzea eta emozioak beren buruengan eta besteengan identifikatzen ikastea lortu nahi da; horretarako, emozioen ulermena landuko litzateke. Baita, haurrek emozioak kudeatzen eta modu osasungarrian adierazten ikastea ere lortu nahi da.

Haur Hezkuntzarako diseinatzen diren proposamen edo jarduera anitzetan bezala, unitate didaktiko honetan talde-lanaren lanketa ezinbestekoa izango da, haurrek haien parekoekin harremanatzeko eta enpatia eta entzute aktiboa lantzeko aukera paregabea izango baitute. Izan ere, norberaren emozioetan ez ezik, besteen emozio-egoeretan jartzen ikastea ere garrantzitsua da. Horrekin lotuta, proposamen honek errespetuaren zainketa lantzea helburua dauka; haurrak elkarrekin burutzen duten jarduera guztietan haien artean errespetatzen ikasi behar dute, zehazki, era guztietako adierazpenak eta besteen emozioak errespetatzen ikastea.

Saio bakoitzean, lehenengoan izan ezik, errutinak lantzen dira, *mood meter* izeneko jardueraren bitartez. Haur Hezkuntzako haurren garapenerako errutinak funtsezkoak eta ezinbestekoak dira, beraz, eskola-etapa honetarako diseinatzen den edozein proiektu edo proposamenetan errutinak ezartzea garrantzitsua da.

4.1. Testuingurua.

Diseinatu dudan proposamena Mendigoiti ikastetxe publikoan eramango litzateke aurrera. Mendigoiti ikastetxea Iruñeko Mendillorri auzoan kokatuta dago. D ereduko ikastetxea da, hau da; ikasleei euskarazko eredia eskaintzen diete gaztelania eta ingelesa ikasgaiarekin batera.

Haurtzaroa errespetatzen duen eskola da, eta haurrei pertsona heldu gisa garatzen laguntzea, ezagutzen ez dituzten munduak eta horizonteak aurkitzea eta talentu propioak garatzea helburua du.

Hezkuntza bizi eta aktiboarekin konprometitutako eskola da Mendigoiti. Horrek esan nahi du curriculum-dukiei heltzeko eta oinarrizko gaitasunen garapen egokia ziurtatzeko kanalak

egitura pedagogiko eta antolamenduzkoak direla: Montessori garapen-materialak; ikasgelen diseinua ikaskuntza-giroetan; proiektuetan oinarritutako ikaskuntza; tailerrak; nahitaezko edo diren zeregin dibertsifikatuak; autorregulazioa eta laneko autonomia; lan kooperatiboa; adin desberdinetako talde malguak eta hezkuntza bizi eta aktiboko gainerako baliabide pedagogikoak.

Neurozientziaren ekarpenetan oinarrituta lan egiten dute, ikasteko erritmo eta kanal naturalak errespetatuz, haurrei diziplina positiboko programarekin lagunduz, emozioen, premia afektibo eta sozialen eta ikaskuntzen pedagogia orekatuz, eta haur guztien hezkuntza-arrakasta eta arrakasta pertsonala bermatzeko lotura, ekarpena, kide izatea, autorregulazioa, autonomia eta erabakiak hartzea sustatuz.

Mendigoiti ikastetxe publikoa 360 ikasleek osatzen dute guztira. Haur-hezkuntzako etapan 118 ikasle daude, horien artean 56 mutil eta 62 neska, eta hiru mailatan banatuta, bakoitzak erreferentziarako bi gela izanik, bigarren maila izan ezik, hiru gela baititu. Hala ere, lehen hezkuntzako etapan 242 ikasle daude, 109 mutil eta 133 neska, eta sei mailatan banatuta dago, bakoitzak erreferentziarako bi gela dituela.

Planteatuko unitate didaktikoa bost urteko hurrekin burutzeko bideratuta egongo litzateke. Garapen psikomotorrean zentratuta, Ureña pediatriak dio bost urterekin haurrak nerbio-sistema garatuta dutela, eta, beraz, gai direla behar bezala ibiltzeko, korrika egiteko, saltoka ibiltzeko, zuhaitzetara eta txirristara igotzeko eta zenbait kirol-jarduera egiteko. Leonek (1998) adierazi duenez, adin horretan jarduera motore lodiek haurraren denboraren zati handi bat hartzen dute, baina lasaitasun-aldi luzeagoak ere agertzen hasten dira. Lasaitasun-aldi horietan, haurrak eskuzko hainbat jarduera egiten hasten dira. (Cerdas, Polanco eta Rojas).

Garapen kognitiboari dagokionez, Reyes et alen (1984) ustez bost urteko haurrek oraindik ezin dituzte ezagutza-eragiketak alderantzikatu, eta egoera bereko alderdi bat baino gehiago aldi berean bereganatzea zaila egiten zaie, baita oraindik ere objektuen irudikapen sinbolikoa maneiatzeko zailtasun pixka bat adierazten dute. (Cerdas, Polanco eta Rojas).

Etaparen irudikapenen mailari dagokio, eta horren ezaugarri nagusia mundu errealeko objektuak manipulatzeko, eraikitzea eta antolatzea da, elkarrekintza zuzenaren bidez. Fonseca adin honetan haurrak oso irudimentsuak direla adierazten du, gauzak sortzeko eta edozer gauzatan bihurtzeko erraztasun handia dutela, oraindik ere euren fantasia oso

indartsua baita. Bere ustez, adin honetan drama, jolas sinbolikoa eta esperimentazioa oso garrantzitsua da. (Cerdas, Polanco eta Rojas).

Amaitzeko, garapen sozio-emozionalari dagokionez, Fonsecak adin honetan haurrak kasketak egitea oso ohikoa dela adierazten du, haurtxo izateari utzi eta adin handiago talde batean integratzen direlako. Ana Teresa León psikologoak, bere aldetik, bost urteko haurrak arreta handia eskatzen jarraitzen dutela dio, kontaktua eta afektu fisikoa behar baitute. Bestetik, bost urteko haurrak jolas bakartian eta jolas paraleloan aritzea gustuko dute; hala ere, elkartzekoaren lehen ezaugarriak nabarmentzen hasten dira; izan ere, berdinekin erlazio handiagoa dago, jolasteko materiala partekatuz. Adin honetan, dramatizazioekin asko gozatzen dute. (Cerdas, Polanco eta Rojas).

4.2. Denboralizazioa.

Diseinatutako unitate didaktikoa zazpi astetan gauzatuko litzateke, zazpi saioz osatutakoa eta saio bakoitza 45 minutuko iraupenarekin. Beraz, zazpi saioak astean behin egingo lirateke, zehazki, asteazkenetan.

Saio guztietan emozioak eta dantza landuko lirateke. Lehenengo bi saioetan, lehen mailako emozioei buruzko sarrera bat egingo litzateke: beldurra, tristura, haserrea, poztasuna, harridura eta nazka, dantza jarduera batzuetan presente egonik. Hurrengo lau saioetan, ordea, sei emozio primarioetatik lau landuko lirateke, emozio bat saio bakoitzeko. Nire ikuspuntutik, sei emozio primarioen barruan, haurrengan ohikoagoak diren emozio zehatz batzuk daude: haserrea, alaitasuna, beldurra eta tristura, horregatik nire unitate didaktikoa gehienbat lau emozio horietan oinarritzea erabaki dut. Bukatzeko, azkeneko astean lau emozio horiek batera lantzeko saio bat egingo litzateke.

Saio bakoitza fase edo jarduera desberdinetan banatuta dago; jarduera nagusia edo hasierako errutina, erdiko jarduerak eta barealdia. Saioetako fase bakoitzak antzeko iraupena dute: Lehenengo saioan, emozioen identifikazioan, hasierako jarduera 10 minutuko iraupena du, barealdia bezala, eta erdiko jarduerak, aldiz, 25 minutuko iraupena dauka. Bigarren saioan, ordea, emozioak azalratzea, hasierako errutina 5 minutuko iraupena dauka, erdiko jarduerak 30 minutuko iraupena eta barealdiak, aldiz, 10 minutuko iraupena. Hurrengo lau saioetan, poztasuna, tristura, hira eta beldurra lantzen, fase bakoitzaren iraupena berdina da: hasierako errutinak 5 minutu inguru irauten dute, erdiko jarduerak 30

Dantza emozioak lantzeko tresna gisa Haur Hezkuntzan

minutu eta barealdiak, berriz, 5 minutu. Amaitzeko, azken saioan, hasierako errutinak 5 minutu irauten du, erdiko jarduera , ordea, 30 minutu, eta barealdiak 10 minutu.

4.3. Haur Hezkuntzako kurrikuluma.

4.3.1. Helburu orokorrak.

61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma jarraituz, sortutako unitate didaktikoaren bitartez, hurrengo helburu orokorrak lortu nahi dira:

a) Norberaren gorputza eta ikaskideena deskubritu eta ezagutzea, bai eta gorputzaren ekintzarako aukerak ere, eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.

d) Beren gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea, eta helduekin nahiz beste haurrekin lotura seguruak ezartzea.

f) Komunikazio trebetasunak garatzea zenbait hizkuntza eta adierazpidetan.

4.3.2. Funtsezko kompetentziak eta kompetentzia espezifikoak.

Bestetik, 61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma jarraituz, diseinatutako unitate didaktikoaren bitartez, hurrengo funtsezko kompetentziak landu nahi dira:

- Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- Ekimenerako kompetentzia.
- Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako kompetentzia.

Horretaz gain, unitate didaktikoaren bitartez landu nahi diren kompetentzia espezifikoak taula honen bitartez ikus daitezke, arloka sailkatuta:

8. taula.

Kurrikulumeko kompetentzia espezifikoak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	
HARMONIAN HAZTEA	ERREALITATEA KOMUNIKATZEA ETA IRUDIKATZEA
<ul style="list-style-type: none"> • Aurrera egitea bere gorputzaren kontrolean eta zenbait estrategia bereganatzen, bere ekintzak inguruneko errealitatera moldatzeko modu seguruan, bere buruaz irudi doitu eta positiboa eraikitzeke. • Bere emozioak ezagutu, adierazi eta modu progresiboan erregulatzea, eta beharrak eta sentimenduak adieraztea, ongizate emozionala eta segurtasun afektiboa lortzeko. • Interakzio sozialak ezartzea berdintasunez, eta baloratzea adiskidetasunaren, begirunearen eta enpatiaren garrantzia, balio demokratikoetan eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako norberaren nortasuna eraikitzeke. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko egoeretan interakziorako interesa agertzea, bere komunikazio errepertorioa esploratuz eta erabiliz, bere beharrak eta asmoak adierazteko eta ingurunearen exigentziei erantzuteko. • Mezuak eraginkortasunez eta modu pertsonal eta sortzailean sortzea, hainbat hizkuntza erabiliz, eta haietako bakoitzaren kodeak deskubritzea eta adierazpenerako dituzten aukerak esploratzea, behar komunikatibo batzuei erantzuteko.

Oharra. Kurrikulumeko konpetentzia espezifikoak, 2022.

4.3.3. Ebaluazio irizpideak.

Edozein proposamen edota saio praktikoaren bukaeran ebaluazio bat burutzea ezinbestekoa da; zehaztu egin diren helburuak lortu egin diren, landu nahi ziren jakintzak barneratu diren, jarduerak haurren interesetara edota gaitasunetara egokituak izan diren... balioztatzeke.

Ebaluazio egoki bat garatu ahal izateko *61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumean*

ezarritako ebaluazio irizpideak jarraitu behar dira. Hurrengo taulan, arloka sailkatuta, kontuan hartuko lituzkeen ebaluazio irizpideak agertzen dira.

9. taula.

Kurrikulumeko ebaluazio irizpideak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
HARMONIAN HAZTEA	ERREALITATEA KOMUNIKATZEA ETA IRUDIKATZEA
1.1. Bere gorputzaren ezagutzan aurrera egitea, ekintzak eta erreakzioak doitzea eta oreka, zentzumenezko pertzepzioa eta mugimenduaren koordinazioa garatzea.	1.2. Bere komunikazio errepertorioa egokitzea proposamenetara, solaskideetara eta testuingurura, hizkuntza guztien adierazpen aukeretan arakatuta.
2.1. Bere beharrak eta sentimenduak identifikatu eta adieraztea, eta bere emozioen kontrola modu progresiboan doitzea.	3.4. Sorkuntza-lan plastikoak egitea, materialak eta teknikak esploratuz eta erabiliz, eta talde lanean modu aktiboan parte hartuz beharrezkoa denean.
4.1. Ekimenez parte hartzea jolas eta jarduera kolektiboetan, beste pertsonekin afektu eta enpatia jarrerekin erlazionatzea, betiere banako erritmoak errespetatuz eta diskriminazio mota oro alde batera utziz.	3.6. Harmoniaz doitzea bere mugimendua besteen mugimenduaren eta espazioaren arabera, gorputz adierazpen libretzat hartuta, interesa eta ekimena adieraziz.

Oharra. Kurrikulumeko ebaluazio irizpideak, 2022.

4.3.4. Oinarrizko jakintzak.

Berriro ere, *61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculum*a jarraituz, diseinatutako unitate didaktikoaren bitartez, hurrengo oinarrizko jakintzak landu nahi dira, arloka sailkatuta:

10. taula.

Kurrikulumeko oinarrizko jakintzak.

OINARRIZKO JAKINTZAK	
HARMONIAN HAZTEA	ERREALITATEA KOMUNIKATZEA ETA IRUDIKATZEA
<p><i>A. Gorputza eta haren kontrol progresiboa.</i></p> <p><i>A.1.</i> Gorputzaren irudi global eta segmentarioa ezagutu eta onartzea: banako ezaugarriak eta aldaketa fisikoen pertzepzioa.</p> <p><i>A.5.</i> Mugimendua: kontrolatzea koordinazioa, tonua, oreka eta lekualdatzeak jolas libreko egoeretan.</p> <p><i>A.7.</i> Tonua eta jarrera ekintza eta egoeretara egokitzea.</p> <p><i>B. Garapen eta oreka afektiboak.</i></p> <p><i>B.1.</i> Norberaren emozio, sentimendu, bizipen, lehentasun eta interesen gaineko kontzientzia emozionala, adierazpen oro errespetatuz.</p> <p><i>B.2.</i> Laguntza eta elkarlanerako estrategiak jolasaren eta errutinen testuinguruetan. Lankidetzak.</p>	<p><i>A.</i> Komunikazio interakzioaren asmoa eta elementuak.</p> <p><i>A.1.</i> Komunikatzeko nahia. Komunikazio errepertorioa eta hitzik gabeko komunikazioaren elementuak. Isilaldiak errespetatuz eta egoerak sorraraziz askotariko ahozko testuinguruetan.</p> <p><i>A.3.</i> Hizkuntza trukearen konbentzio sozialak komunikazio egoeretan: arreta, entzute aktiboa, mintzatzeko txandak eta alternantzia, begirunea, berdintasuna eta ekitatea indartzen dituztenak.</p> <p><i>E.</i> Literatura hezkuntzara hurbiltzea.</p> <p><i>E.2.</i> Lotura afektibo eta ludikoak literatura testuekin, testu moten aniztasuna barne dela ikasgelako liburutegian.</p> <p><i>G.</i> Hizkuntza eta adierazpen plastikoak eta ikusizkoak.</p> <p><i>G.2.</i> Sorkuntzen adierazpen asmoa pintura, eskultura, arkitektura, argazkigintza eta zinemaren bidez.</p> <p><i>H.</i> Gorputz hizkuntza eta adierazpena</p> <p><i>H.1.</i> Norberaren gorputzaren adierazpen</p>

<p>B.3. Komunikazioa, asertibitatea eta begirunezko entzute aktiboa besteekiko.</p>	<p>eta komunikazio aukerak bakarkako eta taldeko jardueretan, aurreiritzi eta estereotipo sexistarik gabekoetan.</p>
<p>C. Bizi ohitura osasungarriak norbere burua eta ingurunea zaintzeko.</p>	<p>H.2. Gorputz adierazpeneko eta adierazpen dramatikoko jolasak.</p>
<p>C.1. Jarduera fisiko egituratua, hainbat intentsitate mailarekin.</p>	<p>H.3. Dantza mota eta generoetara hurbiltzea.</p>

Oharra. Kurrikulumeko oinarritzko jakintzak, 2022.

4.4. Metodologia.

Proposamen honetan diseinatutako saioetan erabiliko litzatekeen metodologiari dagokionez, aktiboa eta parte-hartzailea izango litzatekeela azpimarratu behar da, haurren beharrei eta nahiei garrantzia eman nahi baitzaie, baita haurren autonomia eta sormena sustatzeari ere. Era berean, haurrak proposamenaren protagonistak bezala erakusten direla nabarmendu behar da, unitatea ikasle-taldearentzat planteatu baita, haien aurrezagutzak, gaitasunak eta haur bakoitzaren erritmo naturalak kontuan hartuta. Horrela, irakaslea bigarren maila batean geratuko litzateke, beti prest haurrei jardueretan eta saioetan laguntzeko eta gidatzeko.

Saioetarako planteatzen diren irakaskuntza-estiloetan murgilduz, alde batetik, ereduaren imitazioaren bidezko irakaskuntza erabiliko litzateke, berez, saioetako jarduera batzuetan haurrek eredu bat imitatuko lukete, kasu honetan irakaslea, eta mugimenduak ahalik eta modu antzekoenean errepikatuko litzukete. Estilo honek ohikoena ez litzateke izango, irakasleak koreografia bat diseinatu eta ikasleek hura ikastea eta errepikatzea helburu duten jardueretan aurrera eramango litzateke. Horretarako, irakasleak estrategia analitikoak erabiliko lituzke, hau da, koreografia zatika eta urratsez urrats irakatsiko luke.

Bestalde, irakaskuntza parte-hartzailea oso presente egongo litzateke proposamen honetan. Lehen aipatu dudana bezala, haurra izango litzateke jarduera ororen protagonista, eta, beraz, ikasleak beren ikaskuntza prozesuaren parte aktiboa izan daitezela lagundu nahi da, beren autonomia-maila handituz. Ikasleek estilo honen bitartez haien ideiak konpartitzea sustatu nahi da, eta hori oso gabi ikus daiteke, adibidez, koreografiak sortzeko jardueretan, jada, haur bakoitza dantza urrats bat asmatu eta beren taldeko kideei erakutsi beharko lieke,

ondoren taldean urrats guztiak nola batuko duten adostu beharko lukete koreografia sortu ahal izateko.

Sormen-mugimenduaren fase autonomoaren estiloa proposamenaren hainbat saioetan presente egongo litzateke. Estilo honen bitartez hurrek espazioan modu askean nola mugitu aukeratuko lukete, inolako eredurik edo kontsignarik eman gabe. Sormen-mugimenduaren fase autonomoa adibidez, mood meter izeneko hasierako jardueran, eta baita dantza libreko jardueran ere ikus daiteke. Estilo horren bidez, haurrak naturaltasun osoz adierazteko gai izatea eta haien autonomia eta sormena sustatzea lortu nahi da.

4.5. Saioen diseinua.

Diseinatutako unitate didaktikoa, lehen esan dudan bezala, zazpi saioz osatuta dago. Saio guztiak jarraian aurkituko diren taula batzuetan azalduta egongo dira. Taula horietan, honako hau aipatuko da: saioaren izena eta zenbakia, saioak zein adinetara zuzentzen diren, saio bakoitza non egiten den, landu nahi diren helburuak eta oinarrizko jakintzak, jardueren deskribapena, iraupena, hau da, fase bakoitzari eta saio osoari eskainiko zaion denbora, eta, azkenik, saioa egiteko behar diren baliabideak. Azken atala jarduera bakoitzerako erabiliko diren materialez eta abestiez zatituta egongo da.

11. taula.

Emozioak identifikatzen.

1.SAIOA: EMOZIOAK IDENTIFIKATZEN	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotrizitate gela.
Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Sei oinarrizko emozioak ezagutzea. • Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. • Emozioak gorputzarekin adierazten jakitea. • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Erlaxatzen ikastea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea.
Oinarrizko	1. Arloa, Harmonian haztea: A.5, B.1 eta B.3.

jakintzak	3. Arloa, Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: A.1, A.3, G.2, H.1 eta H.2.
Jardueren deskribapena	<p><i>Hasierako jarduera (Oinarrizko 6 emozioak):</i> Haurrak eta irakaslea borobilean eseriko dira eta haien artean emozioen inguruan mintzatuko dute, horretarako irakasleak honako galdera hauek egingo dizkie: Egunean zehar ze emozio sentitzen dituzue? Eskolara etortzen zaretenean ze emozio sentitzen dituzue? Zuentzat zeintzuk dira emozio positiboak eta zeintzuk negatiboak?... Ondoren, sei emozioen txotxongiloak aurkeztuko zaizkie, hauek identifikatu eta bakoitzari dagokion kolorearekin lotu diezazkioten.</p> <p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Jarduera (Ze emozioa naiz?):</i> Haurrak bikoteka jarriko dira. Batek bere gorputza erabiliz emozio bat irudikatuko du, hitz egin gabe, adibidez, poztasuna adierazteko haurra salto egin, dantzatu edo irri egin dezake. Beste kidea emozioa asmatu beharko du. Ondoren rolak aldatuko dituzte. 2. <i>Jarduera (Gure emozioak identifikatzen ditugu):</i> Haurrak berriro korroan kokatuko dira eta lurrian sei txotxongiloak jarriko dira, borobilaren erdian. Ikasleei galdera batzuk egingo zaizkie adibidez: Ze emozio sentitzen duzue lagunekin jolasten zaretenean? Haurrak, hitzez erantzun ahalko dezakete baina gorputzarekin emozioa adierazteko aukera emango zaie, hala nola; bueltak eginez, salto eginez... baita txotxongiloak erabiliz ere. 3. <i>Jarduera (Melodiak zer transmititzen dizu?):</i> Musika mota desberdinak jarriko zaie: alaitasuna transmititzen dutenak, beldurra ere bai, etab. Hurrek espazioan zehar libreki mugitu beharko dira, melodiak transmititzen diena gorputzarekin adieraziz. <p><i>Barealdia (Sentitzen dudana marrazten dut):</i> Haur bakoitzari sentitzen dutenaren arabera eskuak margotuko zaizkie, adibidez, pozik sentitzen badira hori kolorea erabiliko dute. Behin eskuak margotuta dituztenean</p>

Jardueren deskribapena	paper luze baten gainean estanzazioa egingo dute. Ondoren, arkatzekin eta margoekin nola sentitu diren paperaren gainean islatzeko aukera izango dute ere.
Iraupena	45 minutuko saioa: <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako jarduera: 10 minutu. • Erdiko jarduerak: 25 minutu. • Barealdia: 10 minutu
Baliabideak	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emozioen sei txotxongiloak: Hira, poza, tristura, beldurra, harridura, nazka. • Papera, kolore ezberdinetako tenperak, arkatzak eta margoak. • Bozgorailua. <p>Abestiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Musika alaia: <ul style="list-style-type: none"> - Huntza. [Huntza official]. (2017, azaroak 9). <i>Aldapan gora</i> [Bideo] YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=ONsp-SMT6is - Ene Kantak. [Enekantak]. (2018, urtarrilak 12). <i>Zeure burua onartu.</i> [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=y1qjgn_Jp0 • Musika triste: <ul style="list-style-type: none"> - En Tol Sarmiento. [E.T.S Official]. (2020, ekainak 9). <i>Zurekin batera.</i> [Bideo]. YouTube https://www.youtube.com/watch?v=ZTJRszfS2Yw - Ken Zazpi [Ken Zazpi - Tema]. (2014, azaroak 8). <i>Ilargia.</i> [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=_w1wlbMj514 • Musika beldurgarria: <ul style="list-style-type: none"> - EU producciones Musicales. (2019, ekainak 13) <i>Musica Tenebrosa Instrumental.</i> [Bideo]. YouTube. https://youtu.be/zdFx24ljUFk

Oharra. Emozioak identifikatzen, Miren Abaurrea, 2023.

12. taula.

Emozioak azaleratzen.

2.SAIOA: EMOZIOAK AZALERATZEN	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotrizitate gela.
Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Emozio desberdinak identifikatzen eta adierazten jakitea. • Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. • Emozioak gorputzarekin adierazten jakitea. • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Koreografiaren urratsak egoki jarraitzen ikastea. • Dantza folklorikoa lantzea. • Taldean aritzen ikastea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea. • Erlaxatzen ikastea.
Oinarrizko jakintzak	<p>1. Arloa: Harmonian haztea: A.5, B.1 eta C.3.</p> <p>3. Arloa: Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: E.2, G.2, H.1, H.2 eta H.3.</p>
Jardueren deskribapena	<p><i>Hasierako errutina (Mood meter):</i> Lurrean koadrante bat kokatuko da, lau kolore ezberdin dituena. Haurrak koadrante horretako kolore batean kokatu beharko dira, haien energiaren eta sentsazioaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kolore horian: Sentsazio atseginak badituzte eta indartsu sentitzen badira hemen kokatu beharko dira eta dantzatzeko, salto egiteko eta mugitzeko aukera izango dute. • Kolore gorrian: Haserre sentitzen direnek energia handia erabiliko dute. Oihukatzeke, lekuan korrika egiteko, airean jotzeko etab. aukera izango dute. • Kolore urdinean: Jolasteko indarrik ez dutenek, zeozer faltan sumatzen edo sarritan bakarrik egotea nahiago dutenek ere hemen kokatuko dira. Beraiekin egoteko eta pentsatzeko espazioa izango da. • Kolore berdean: Gauza asko eta korrika egiteko gogoak ez

Jardueren deskribapena	<p>dutenek eta gustura eta lasai sentitzen direnak kolore honetan jarriko dira. Sakon eta geldo hartuko dute arnasa.</p> <p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Jarduera (Emozioen eskulturak):</i> Haurrak bikoteka edo hiruko taldeetan jarriko dira, eta, musika entzuten duten bitartean, bikote kide batek bere lagunaren gorputzarekin estatua bat zizelkatuko du, musikak sentiarazten diona irudikatuz (musika triste bada eskultura triste bat irudikatuz...). 2. <i>Jarduera (Emozioak dantzatu):</i> Hurrei emozioen txotxongiloak erakutsiko zaizkie eta galdera hau egingo zaie: Nola irudikatuko zenukete zuen gorputzarekin/dantzatzuz emozio hau (tristura, alaitasuna)? 3. <i>Jarduera (Dantza folklorikoa):</i> Hurrei koreografia folkloriko txiki bat erakutsiko zaie elkarrekin egiteko. Koreografia irakaslea egindakoa izango da eta horren bitartez haurrak emozio ezberdinak lantzeko aukera izango dute. Dantza burutzeko musika mota ezberdinen nahasketa egingo da. <p><i>Barealdia (Koloretako munstroa):</i> Hurrei “koloretako munstroa” liburua irakurriko zaie eta bukatzean, margoketaren edo estanpazioaren bidez paper batean sentitzen dutena azaleratzeko aukera izango dute. Ipuina 1. eranskinean ikus daiteke.</p>
Iraupena	<p>45 minutuko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako jarduera: 5 minutu • Erdiko jarduerak: 30 minutu. • Barealdia: 10 minutu
Baliabideak	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mood meter-a • Emozioen sei txotxongiloak: Hira, poza, tristura, beldurra, harridura, nazka. • Bozgorailua. • “Koloretako munstroa” liburua.

Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> ● Papera, kolore ezberdinetako tenperak, arkatzak eta margoak. <p>Abestiak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Musika alaia: <ul style="list-style-type: none"> - Txirri, Mirri ta Txiribiton. [Txirri, Mirri ta Txiribiton- Tema]. (2017, maiatzak 4). <i>Altza, Felipe!</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=seEe5gYhmWc - Solano, X. [Elkar Musika]. (2020, apirilak 2). <i>ERRE ZENITUZTEN</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=Y0TFStqZcE ● Musika tristea: <ul style="list-style-type: none"> - Nøgen. [Nøgen]. (2018, azaroak 8). <i>Oxigenoa</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=-B8roNHUf6k&list=RD-EMQ67wegyKx4g4Bf2Bfzms3Q&index=8 - Ken Zazpi [Elkar Musika]. (2020, apirilak 6). <i>Itsasoa gara</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=DYTcedtLF00 ● Musika beldurgarria: <ul style="list-style-type: none"> - Live your Dreams. (2017, urriak 28). <i>Música de Halloween de Terror</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=TMObBgmu63I
-------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Oharra. Emozioak azaleratzen, Miren Abaurrea, 2023.

13. taula.

Poztasuna lantzen.

3.SAIOA: POZTASUNA (EMOZIO POSITIBOA) LANTZEN	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotritate gela.
Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> ● Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. ● Poztasuna identifikatzen jakitea. ● Poztasuna gorputzarekin adierazten jakitea.

Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Taldean aritzen ikastea. • Koreografia bat sortzen ikastea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea. • Erlaxatzen ikastea.
Oinarrizko jakintzak	<p>1. Arloa: Harmonian haztea: A.1, A.5. A.7, B.2, B.3 eta C.3.</p> <p>3. Arloa: Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: A.3 eta H.1.</p>
Jardueren deskribapena	<p><i>Hasierako errutina (Mood meter):</i> Ariketa hau taldeko energia eta haurren sentsazioak neurtzeko burutuko da.</p> <p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Jarduera (Animalien dantza):</i> “Animalien ibilkera” abestiaren koreografia sinplea burutuko da, kanta aipatzen duen animali guztien mugimenduak besoekin edo hankekin imitatuz. Horretarako, lehenik irakaslea ikasleei animali bakoitzaren mugimenduak nola egin behar diren erakutsiko dizkie. Abestiaren letra 2. eranskinean ikus daiteke. 2. <i>Jarduera (Dantzaren imitazioa):</i> Ikasle guztiak korro batean bilduko dira eta alaitasuna transmititzen duen musika jarriko zaie. Boluntario batek edo irakasleak aukeratutako haur batek mugimenduak egiten hasiko da, musika transmititzen diona adieraziz, eta gainontzekoek, mugimendu horiek imitatu beharko dituzte. 3. <i>Jarduera (Poztasunaren koreografia):</i> Jarduera hau burutzeko haurrak lau edo bosteko taldeetan bananduko dira. Musika jarrita haur bakoitza musika horrek eragiten diona adierazteko mugimendu bat sortuko du eta bere taldekoei erakutsiko die. Horrekin talde bakoitzak gutxienez 4 mugimendu izango dituzte eta mugimendu horiekin esaldi koreografiko txiki bat sortuko dute, hura ikasi eta, ondoren, besteei erakusteko aukera izango dute. <p><i>Barealdia (Arnasketa gidatua):</i> Haurrak borobilean jarriko dira eta irakasleak arnasketa gidatuko du: Haurrak zutik jarriko dira, hankak apur</p>

Jardueren deskribapena	bat bananduta. Elefante bihurtuko direla eta haiek bezala arnasa hartuko dutela adieraziko die. Hasteko, airea sudurretik sakon hartu beharko dute, eta, hala egiten dutenean, besoak altxatuko dituzte, elefantearen tronpa balira bezala, eta sabelaldea puzten saiatuko dira. Ondoren, arnasa botatzeko unea da, horretarako, ahoa erabiliko dute, besoak jaitsiz, pixka bat makurtuz eta “elefantearen tronpa” beherantz eramanez.
Iraupena	45 minutuko saioa: <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako jarduera: 5 minutu. • Erdiko jarduerak: 35 minutu. • Barealdia: 5 minutu.
Baliabideak	Materiala: <ul style="list-style-type: none"> • Mood meter-a. • Bozgorailua. Abestiak: <ul style="list-style-type: none"> • Ene Kantak. [Enekantak]. (2013, apirilak 16). <i>ANIMALIEN IBILKERA</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=P4byJ7qRy3E • Huntza. [Huntza Official]. (2018, azaroak 13). <i>Lasai, lasai</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=w3QPzUVx3Ps&list=PLA_I2ay5YcUV2IA5AqUvJZlh-1z0k4s0U&index=6 • En Tol Sarmiento [E.T.S Official]. (2022, martxoak 3). <i>Sumendiak</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=evUhwtozbwA

Oharra. Poztasuna lantzen, Miren Abaurrea, 2023.

14. taula.

Tristura lantzen

4.SAIOA: TRISTURA (EMOZIO NEGATIBOA) LANTZEN.	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotrizitate gela.

Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. • Tristura identifikatzen jakitea. • Tristura gorputzarekin adierazten jakitea. • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Gorputz atal desberdinen kontzientzia hartzea • Taldean aritzen ikastea. • Dantza garaikidea lantzea. • Koreografia bat sortzen ikastea. • Koreografiaren urratsak egoki jarraitzen ikastea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea. • Erlaxatzen ikastea.
Oinarrizko jakintzak	<p>1. Arloa: Harmonian haztea: A.1, A.5, A.7, B.1, B.2 eta C.3.</p> <p>3. Arloa: Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: A.3, H.1, H.2 eta H.3.</p>
Jardueren deskribapena	<p><i>Hasierako errutina (Mood meter):</i> Ariketa hau taldeko energia eta haurren sentrazioak neurtzeko burutuko da.</p> <p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Jarduera (Ispilua):</i> Haurrei bikoteka jartzeko eskatuko zaie, bata bestearen aurrean. Jarraian, tristura transmititzen duen musika entzuten hasiko dira, momentu horretan bikote bakoitzaren kide batek dantzaren bidez musika horrek transmititzen diona adierazi beharko du eta aurrean duen laguna bere mugimenduak imitatu beharko ditu. Gero haurrek rolak aldatuko dituzte. 2. <i>Jarduera (Dantza garaikidearen koreografia):</i> Haurrei dantza garaikidean lantzen diren pausu batzuk erakutsiko zaizkie eta hauek imitatu izan beharko dituzte. Horretarako, urratsak lurretik egingo dira. <p>Dantza-urratsekin hasi aurretik, haurrak lurrean etzan egingo dira eta gorputza erlaxatzeko eskatuko zaie. Ondoren, besoak gurutze moduan jarriko dituzte, hau lehenengo posizioa litzateke, izar posizioa. Hortik "bolatxo" posiziora pasatuko dira, besoak eta hankak elkartuz eta gorputza albo batera mugituz, fetuaren posizioan amaituz. Hirugarren posizioan ipurmasailak orpoen</p>

<p>Jardueren deskribapena</p>	<p>ganean jarriko dituzte, eta "bolatxotik" posizio horretara iristeko besoekin lagundu beharko dira. Azkenik, hasierako posiziora itzultzeko oin bat lurraren ganean jarri eta indarra egin beharko lukete zutik jartzeko. Hurrei lau posizio horiek erakutsiko zaizkie, eta behin ikasita, dantza mugimendu bat edo beste sartuko zaizkie, koreografia sinple bat burutzeko. Koreografia prest eta ikasita dagoenean, musikarekin dantzatuko dute denek batera.</p> <p>3. <i>Jarduera (Tristuraren koreografia)</i>: Lauko edo bosteko taldeetan jarriko dira. Tristura adierazten duen koreografia bat sortuko dute. Horretarako bigarren jardueran landu diren pausuak erabili ahalko dituzte nahi izatekotan. Ondoren talde bakoitzak aukera izango dute haien koreografia besteei erakusteko.</p> <p><i>Barealdia (Esponjaren masajea)</i>: Hurrei bikoteka jartzeko eskatuko zaie, bikote bakoitzeko kide bat lurrean etzango da eta begiak itxita izanik. Musika lasaia jarriko zaie, eta beste kidea pilotarekin lagunaren gorputzean masajea egingo dio, lehenengo besoetan, gero bizkarrean... pilota xaboia balitz bezala. Gero rolak aldatuko dituzte.</p>
<p>Iraupena</p>	<p>45 minutuko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Hasierako jarduera: 5 minutu. ● Erdiko jarduerak: 35 minutu. ● Barealdia: 5 minutu.
<p>Baliabideak</p>	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Mood meter-a. ● Pilota txikiak. ● Bozgorailua. <p>Abestiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ken Zazpi. [Ken Zazpi-Tema]. (2014, azaroak 9). <i>Noizbait</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=Gp_uyCu8qpg&list=OLAK5uy_ID7QIRrOtYbVCHAQgD6fMbVI49rYPNiBo&index=4 ● Ken Zazpi. [Ken Zazpi-Tema]. (2014, azaroak 8). <i>Hel nazazu eskutik</i>. [Bideo]. YouTube.

Baliabideak	<p>https://www.youtube.com/watch?v=mGqTQ9ohvvg&list=OLAK5uy_ID7QIRrOtYbVCHAQgD6fMbVI49rYPNiBo&index=5</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zetak. [ZETAK]. (2020, apirilak 19). <i>Zeinen Edera Izango Den</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=8-N6K9H9SMk&list=RDEmb79IpfDpkydJvI7v9U7bUQ&index=20 <p>Bideoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • unComo. (2019, azaroak 29). <i>Danza contemporánea para principiantes (Trabajo en el suelo)</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=ScOG2v-Apy4
-------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Oharra. Tristura lantzen, Miren Abaurrea, 2023.

15. taula.

Hira lantzen.

5.SAIOA: HIRA (EMOZIO NEGATIBOA) LANTZEN	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotrizitate gela.
Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. • Haserrea identifikatzen jakitea. • Haserrea gorputzarekin modu egokian adierazten jakitea. • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Taldean aritzen ikastea. • Koreografia bat sortzen ikastea. • Dantza etnikoak lantzea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea. • Haien arnasaz eta bihotz-taupadaz jabetzea. • Erlaxatzen ikastea.
Oinarritzko jakintzak	<p>1. Arloa: Harmonian haztea: A.1, A.5, A.7, B.1, B.2, B.3 eta C.3.</p> <p>3. Arloa: Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: A.3, H.1 eta H.3.</p>
Jardueren deskribapena	<i>Hasierako errutina (Mood meter):</i> Ariketa hau taldeko energia eta haurren sentazioak neurtzeko burutuko da.

<p>Jardueren deskribapena</p>	<p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Jarduera (Hira askatzen):</i> Ikasleak korroan bilduta egunean zehar (eskolan, etxean, parkean etab.) haserretzea zerk eragiten die galdetuko zaie eta banan-banan bere esperientziak komentatzen joango dira. Jarraian, haserretzen dien gauza horietan pentsatzea eskatuko zaie eta hira hori adierazteko eta askatzeko suaren inguruan dantzatuko dute, uztai gorri batek irudikatuko duena, dantza etniko bat balitz bezala. Sutan dantzan ari diren bitartean, pilotak jaurtiko dituzte. Horrela, dantzan ari diren bitartean hira askatuko dute. 2. <i>Jarduera (Hiraren adierazpenak):</i> Korroan jarrita ikasleei haserretzen direnean gorputzarekin nola adierazten duten erakustea eskatuko zaie. Adibidez, oihukatzen, besoak gurutzatzen... Eta hau gorputzarekin adieraztea ere bai. 3. <i>Jarduera (Hiraren koreografia):</i> Lauko edo bosteko taldeetan jarriko dira. Haserrea adierazten duen koreografia bat sortuko dute eta horretarako lehen komentatu izan dituzten haserre adierazpenak erabili izan ahalko dituzte. Ondoren talde bakoitzak aukera izango dute haien koreografia besteei erakusteko. <p><i>Barealdia (Karunesh edo bihotzeko dantza):</i> Karunesh deitzen den erlaxazio dantza burutuko dute. Horretarako haurrak zutik jarriko dira, erlaxatuta eta eskuak bihotzaren gainean jarrita. Haien taupadak sentitzeko eta arnasa astiro hartzeko eskatzen zaie. Gero, irakaslearen mugimenduak imitatu beharko dituzte, hauek Karunesh dantzaren mugimenduak izango dira.</p>
<p>Iraupena</p>	<p>45 minutuko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako jarduera: 5 minutu. • Erdiko jarduerak: 35 minutu. • Barealdia: 5 minutu.
<p>Baliabideak</p>	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mood meter-a.

Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Bozgorailua. • Tamaina ezberdinetako pilotak. • Uztail gorria. <p>Abestiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Love Life. (2017, uztailak 5). Música africana. African music drums. Instrumental. Traditional. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=tBpus4GsqDQ • Gatibu [Gatibu]. (2022, azaroak 10). <i>Ezin Disimulatu</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=4NGqhv5CvMw • DINAMIKA. (2020, martxoak 30). <i>Karunesh, danza del corazón</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=8tDmS0DvEaA
-------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Oharra. Hira lantzen, Miren Abaurrea, 2023.

16. taula.

Beldurra lantzen.

6.SAIOA: BELDURRA (EMOZIO NEGATIBOA) LANTZEN	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotrizitate gela.
Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Beldurra identifikatzen jakitea. • Beldurra gorputzarekin modu egokian adierazten jakitea. • Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Dantzaren laguntzarekin ezin ikusteko beldurrari aurre egitea. • Taldean aritzen ikastea. • Koreografia bat sortzen ikastea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea. • Haien arnasaz eta bihotz-taupadaz jabetzea. • Erlaxatzen ikastea.
Oinarrizko	1. Arloa: Harmonian haztea: A.5, A.7, B.1, B.2, B.3 eta C.3.

jakintzak	3. Arloa: Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: A.3, H.1 eta H.2.
Jardueren deskribapena	<p><i>Hasierako errutina (Mood meter):</i> Ariketa hau taldeko energia eta haurren sentsazioak neurtzeko burutuko da.</p> <p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> <i>Jarduera (Itsututa):</i> Hurrei zapatak kentzeko eta bikoteka jartzeko eskatuko zaie. Bati begiak estaliko zaizkio eta bere bikotea ahotsa erabiliz espaziotik gidatuko dio. Begia estaliak dituen seguru sentitzen bada, dantzatzuz mugitzeko aukera izango du, musika transmititzen diona adieraziz. Ondoren, rolak aldatuko dituzte. <p>Jarduera bukatzean, korroan bilduko dira eta hurrengo galdetuko zaie: Zer sentitu duzue begiak estalita izan dituzue? Laguna, ezer ikusten ez zuenean, seguru sentitzen lagundu diezue? Nola?...</p> <ol style="list-style-type: none"> <i>Jarduera (Dantzaren imitazioa):</i> Haurrak korroan kokatuko dira eta musika beldurgarria jarriko zaie, haur batek hasiko da mugimenduak edo gorputz adierazpenak egiten, musika transmititzen diona adieraziz eta gainontzekoak mugimendu horiek imitatu beharko dituzte. <i>Jarduera (Beldurraren koreografia):</i> Lauko edo bosteko taldeetan jarriko dira eta beldurra adierazten duen koreografia bat sortuko dute. Ondoren, talde bakoitzak haien koreografia besteei erakusteko aukera izango dute. <p><i>Barealdia (Saltoka):</i> Umeek salto egingo dute minutu batez. Ondoren, eseriko dira begiak itxita eta eskuak bularrean dituztela, bihotzaren taupadak eta arnasketa sentitzeko eskatuko zaie. Horrela, beren gorputz-sentsazioez jabetu ahal izango dira.</p>
Iraupena	<p>45 minutuko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako jarduera: 5 minutu. • Erdiko jarduerak: 35 minutu.

Iraupena	<ul style="list-style-type: none"> • Barealdia: 5 minutu.
Baliabideak	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mood meter-a. • Bozgorailua. • Zapiak (begiak estaltzeko). <p>Abestiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baloreak-Tema. (2018, urriak 7). <i>Baloreak</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=2G1zQkH28Dg • Live your Dreams. (2017, urriak 28). <i>Música de Halloween de Terror</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=TMObBgm63I

Oharra. Beldurra lantzen, Miren Abaurrea, 2023.

17. taula.

Lau emozioak lantzen.

7.SAIOA: LAU EMOZIOAK LANTZEN	
Haurren adina: 5 urte	Lekua: Psikomotrizitate gela.
Helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen jakitea. • Melodia gorputz adierazpenarekin bateratzen jakitea. • Emozio ezberdinak gorputzarekin adierazten jakitea. • Taldean aritzen ikastea. • Koreografia bat sortzen ikastea. • Besteekiko errespetuzko jarrerak izatea. • Gorputza tenkatzen/lasaitzen jakitea. • Erlaxatzen ikastea.
Oinarrizko jakintzak	<p>1. Arloa: Harmonian haztea: A.5, A.7, B.1, B.2 eta C.3.</p> <p>3. Arloa: Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea: A.3 eta H.1.</p>
Jardueren deskribapena	<i>Hasierako jarduera (Mood meter)</i> : Ariketa burutuko da taldeko energia eta haurren sentazioak neurtzeko.

<p>Jardueren deskribapena</p>	<p><i>Erdiko jarduerak:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Jarduera (Dantza askea):</i> Orain arte landu diren emozioak (tristura, beldurra, hira, poztasuna...) birgogoratuko dira eta ikasitako horrekin guztiarekin eta haien gogotik irteten denarekin, espazio osotik dantza librea egingo dute, musikarik gabe, haien emozioetan ez eragiteko. 2. <i>Jarduera (Emozioen koreografia):</i> Hurrek landu izan diren lau emozioak batzen dituen koreografia bat sortzen saiatu beharko dira, horretarako irakaslearen laguntza izango dute nahi izatekotan. Koreografia hura sortzeko, lau emozio horiek transmititzen dituzten abesti ezberdinen nahasketa jarriko zaie. <p><i>Barealdia (Taldeko hausnarketa/lotzaren erlaxazioa):</i> Taldean gogoeta txiki bat egingo dute burutu diren saioetan nola sentitu diren eta burutu dituzten jarduerak beraientzat baliagarriak izan diren edo ez aipatzeko. Baita fitxa bat bete beharko dute saio guztietan zehar nola sentitu diren eta beraientzat jarduerak baliagarria izan diren edo ez adierazteko.</p> <p>Ondoren, erlaxazio jarduera hau egingo dute: Hurrei izotz bloke bat direla eta urtaro ezberdinetatik pasatuko direla adieraziko zaie. Ondoren, haurrak espaziotik aske mugitzen hasiko dira, eta "Negua!" kontsigna ematen zaienean, bloke bihurtuko dira, hankak, eskuak, ukabilak eta besoak gogor estutuz. Erabat izoztuta egongo dira. Hala ere, "Udaberria!" esaten zaienean, haurrak gorputz osoa lasaitu beharko dute, izotza pixkanaka urtzen joango baita, eta lurrean etzanda bukatuko dute.</p>
<p>Iraupena</p>	<p>45 minutuko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako jarduera: 5 minutu. • Erdiko jarduerak: 30 minutu. • Barealdia: 10 minutu.
<p>Baliabideak</p>	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mood meter-a.

Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Bozgorailua. <p>Abestiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Musika alaia: <ul style="list-style-type: none"> - Gatibu. [Gatibu]. (2014, abenduak 6). <i>Euritan dantzan</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=0wc-CIMNGs • Musika tristea: <ul style="list-style-type: none"> - En Tol Sarmiento, eta Elorrieta, E. [E.T.S. Official]. (2022, abenduak 1). <i>Barkaidazu</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=6QXVhfpMTNI • Musika beldurgarria: <ul style="list-style-type: none"> - Live your Dreams. (2017, urriak 28). <i>Música de Halloween de Terror</i>. [Bideo]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=TMObBgmU63I
-------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Oharra. Lau emozioak lantzen, Miren Abaurrea, 2023.

4.6. Ebaluazioa.

61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculum aurrera eraman behar den ebaluazioen ezaugarriak ezartzen ditu, ni hauek azpimarratu nahiko nuke:

1. Ebaluazioa globala, etengabekoa eta prestakuntzakoa izanen da. Zuzeneko behaketa sistematikoa izanen da ebaluazio prozesuaren teknika nagusia.

Proposamen honen ebaluazio tresna nagusia behaketa izango da, haurren eboluzioa eta gaitasunen bilakaeraren informazioa eskuratzeko ezinbestekoa baita.

2. Etapa honetako ebaluazioaren helburua izanen da haur bakoitzaren hasierako baldintzak eta bilakaeraren erritmoa eta ezaugarriak identifikatzea. Horretarako, erreferentziatzat hartuko dira arlo bakoitzean ziklo bakoitzerako ezarritako ebaluazio irizpideak.

Ebaluazioaren helburua kalifikaziorik ematea inoiz ez da izango, haurrengan bilakaerak eman diren edo ez identifikatzea baizik.

3. Ebaluazio prozesuak lagundu beharko du irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan, erabilitako estrategia metodologikoen eta baliabideen egokitasuna baloratzuz. Helburu horrekin, inplikaturako profesional guztiek ebaluatuko dute beren hezkuntza jarduna.

Proposamenaren ebaluazioa ez da soilik haurren bilakaera ebaluatzea, proposamena bera ebaluatzea ere ezinbestekoa da. Proposamena haurrentzat egokia ez izatea gerta daiteke, adibidez, erabili diren estrategia metodologikoak edota baliabideak egokiak ez izateagatik. Beraz, horren inguruko balorazioa egitea ezinbestekoa da.

Diseinatutako proposamenaren ebaluazioari dagokionez, bi ebaluazio-mota aurrera eramango lirateke. Lehenengoa ikasleentzat zuzenduta dago, bertan ikasleen ikaskuntzari buruzko informazioa emango duten datuak sistematikoki, zorrotasunez eta etengabe biltzen dira. Hortik abiatuta, haurrek ezagutzak eta gaitasunak eskuratzen ari diren jakiteko eguneroko behaketa eta oharra erabiliko lirateke. Tresna horiek etengabeko ebaluazioa egiteko aukera ematen dute, eta haurren prozesua eta aurrerapenak zehatzago ikusi daitezke.

Ebaluazioa aberasgarria izateko ikasle bakoitzerako errubrika bat beteko litzateke. Errubrika hauetan haur bakoitzaren bilakaera erakusten duten alderdiak nabarmentzen dira eta ebaluatu beharreko itemak 61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen dituen ebaluazio irizpideetatik lehen aipaturakoak izango dira, saio bakoitzerako ezarri ditudan helburuekin batera. Item horiek lortu diren edo ez adierazteko honako parametro hauek erabiliko lirateke: BAI (haurrak helburua lortu badu), BIDEAN (haurra helburua lortzeko bidean dagoela ikusten bada) eta EZ (helburua lortzetik urrun badago). Gainera, errubrika bakoitza "OHARRAK" atal bat edukiko du, bertan irakasleak azaldu beharreko edozein oharra idazteko aukera ematen duena. Errubrika honek 3. eranskinean ikus daiteke.

Ikasleen helburuen lorpena ebaluatzeaz gain, irakasleak aurrera eraman duen proposamena, erabilitako metodologia, izan duen rola... ebaluatzea ezinbestekoa da, irakaslearentzat diseinatu duen proposamena haurren ikaskuntzarako eta entretenimendurako baliagarria izan den edo ez ebaluatzea oso baliagarria baita.

Era berean, alderdi negatiboak zein positiboak eta zer aldatu, hobetu edo ezabatuko litzateke azpimarratzea ere garrantzitsua da. Horretarako, haurren parte-hartzea ezinbestekoa ikusten dut, haiek proposamen ororen parte hartzaile aktiboak baitira. Beraz, koebaluazio-metodologia bat ezarriko litzateke "Semaforoa" deituriko jardura aurrera

eramanez, honetan ikasle bakoitzak fitxa bat eta zirkuluetako hiru pegatina edukiko lukete. Hiru pegatina horiek kolore ezberdinetakoak dira: kolore laranja (berdin izan bazaio), kolore berdea (gustura egon bada edo gustatu bazaio), eta gorria (gustatu ez bazaio edo gustura egon ez bada). Beraz, proposamena haien gustukoa izan den edo ez adierazteko pegatina bat edo beste erabili beharko lukete. Fitxa honek 4. eranskinean ikus daiteke.

Azkenik, irakasleak saio bakoitzerako errubrika bat beteko luke, eta bertan hainbat item jasoko dira, hainbat parametroekin batera: BAI (Itela beti betetzen bada), EZ (Itela inoiz bete ez bada), IA BETI (Itela ia beti bete bada). Errubrika honek 5. eranskinean ikusi daiteke.

ONDORIOAK ETA GAI IREKIAK

Lan hau egin ahal izatea nire ikaskuntza-prozesurako oso aberasgarria izan da, emozioen, gorputz-adierazpenaren eta dantzaren munduari buruzko ezagutzak zabaltzeko aukera izan baitut. Gainera, unitate didaktiko bat diseinatzeko aukera eman didate, bertan orain arte ikasi dudan guztia islatzeko aukera eman didana eta, aurrera eraman ez badut ere, ziur nago etorkizunean, irakaslea naizenean, oso baliagarria izango zaidala.

Jorrotutako gaiari buruzko interesa nire barnetik sortu izan zen. Justifikazioan aipatu dudan bezala, dantza nire bizitza osoan presente egon da, txikitatik gozatu izan dut, eta dantzak nire emozioak adierazteko eta askatzeko aukera eman dit. Beraz, gorputz hezkuntzari buruzko proposamen didaktiko bat egiteko gaia esleitu zidatenean, dantzaren gaia berehala burura etorri zitzaidan.

Izan ere, dantza emozioekin lotzearen ideia beranduago etorri zen. Dantzaren gaia adostu nuenean hura modu islatuan lantzea edo ez hausnartzen hasi nintzen, orduan dantza Haur Hezkuntzako beste alderdi batekin lotzen banu lana askoz aberasgarriago izango litzatekeela konturatu nintzen. Hori dela eta, dantza emozioekin lotzea bururatu zitzaidan, jada, lau urteko ikaskuntza prozesu honetan alderdi emozionalaren lanketari garrantzia handia eman bazaio.

Bidean aurkitu ditudan arazo edo zailtasunetako bat datuak aukeratzea izan da; emozioen gaiari buruzko bibliografia zabala dago, eta, horren aldetik, ez dut arazorik izan, baina dantzaren inguruko informazioa, eta, batez ere, Haur Hezkuntzarekin lotuta, nahiko urria zen. Hala ere, Internet eta hainbat testulibururen laguntzarekin gaiaren inguruko datuak ahalik eta zehaztasunez biltzea lortu ahal izan dut, lan neketsua izan bada ere.

Haurtzaroz hitz egiten dudanean beti “emozio” hitza etortzen zait burura. Lehen urteetan emozioak modu bizian esperimentatzen dira eta haurrak emozioak beren gorputzaren bidez transmititzen dituzte, aurpegiko keinuekin nahiz gorputzaren gainerako atalekin. Horregatik, nahiko arraroa egin zitzaidan bi gai horiek batzen dituen informazioa urria izatea, jada asko kostatzen zitzaidan datuak biltzea. Hala ere, horretaz hausnartu ondoren, konturatu nintzen gaur egun eskolan emozioei eta, nola ez, gorputz-adierazpenari garrantzi gutxi ematen zaiela beste alderdi batzuen aurrean, hala nola; hizkuntzari edo zientziei. Nire ustez, eskola-eremuan hiru alderdiak, emozionala, adierazpena eta akademikoa, garrantzia bera izan beharko lukete, guztiak haur bakoitzaren eskola-bizitzan beti presente baitaude.

Aurrekoa kontuan hartuta, gogoeta eragiten didan galdera bat azpimarratu nahi nuen: Helduoi zenbait egoeratan emozioak kudeatzea kostatzen bazaigu eta kudeaketa emozional desegoki horrek gure bizitza sozial eta profesionalean eragiten bagaitu, zergatik hezkuntza emozionala ez da lantzen lehenengo urteetatik? Baliteke gure bizitza orekatua eta heldutasun emozional ona edukitzeko hezkuntza emozionala gakoa izatea.

Amaitzeko, azpimarratu nahi nuen lan hau egiteak ezagutza gehiago ekartzeaz gain, gai honen inguruan ikertzen jarraitzeko eta nire bokazioan, hezkuntzan, lanketa sakonago bat egiteko gogoia piztu didala. Baita espero dut lan hau inspirazio iturri ez ezik, irakurtzen duten guztientzat baliagarria izatea ere, bere etorkizunean gai honen inguruko hausnarketari eta lanari ekiteko.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Abellán Roselló, L. (2021). La danza como medio potenciador de la psicomotricidad en estudiantes de Educación Infantil. *VIREF Revista De Educación Física*, 10 (1), 10–19 (<https://revistas.udea.edu.co/index.php/viref/article/view/342602>).
- Arnáiz Sánchez, P. eta Lozano Martínez J. (1992). Esquema corporal: evaluación e intervención psicomotriz. *Anales de Pedagogía*, (10), 221-239 (<https://revistas.um.es/analespedagogia/article/view/287281>).
- Arteaga Checa, M., Viciano Garófano, V. eta Conde Caveda, J. (1997). *Desarrollo de la expresividad corporal : tratamiento globalizador de los contenidos de representación* (1. edizioa). INDE.
- Berruezo Adelantado, P.P. (2008). El contenido de la psicomotricidad. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 22 (2), 19-34 (<https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27414780003>).
- Bisquerra Alzina, R. (2011). *Educación emocional y bienestar*. (6. edizioa). Wolters Kluwer España.
- Casanova Lamoutte, E.M. eta Sanz de Acedo Lizarraga, M.L. (2012). Motivación y emoción. *Psicología. Individuo y medio social*. (337- 382). Desclée de Brouwer.
- Castañer i Balcells, M. (2002). *Expresión corporal y danza* (1. edizioa). INDE.
- Cerdas Núñez, J., Polanco Hernández, A. eta Rojas Núñez, P. (2002). El niño entre cuatro y cinco años: características de su desarrollo socioemocional, psicomotriz y cognitivo-lingüístico. *Revista Educación*, 26(1), 169-182 (<https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=44026114>).
- De Andrés Viloría, C. (2005). La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela. Programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de los profesores. *Tendencias Pedagógicas*, (10), 107–123 (<https://revistas.uam.es/tendenciaspedagogicas/article/view/1856>).

De Rueda Villén, B. eta López Aragón, C. E. (2013). Música y programa de danza creativa como herramienta de expresión de emociones. *Retos*, (24), 141–148 (<https://recyt.fecyt.es/index.php/retos/article/view/34545>).

Dúran, L. (1995). La importancia de la danza infantil en el proceso educativo. *Universidad Veracruzana*, (42), 107-110 (<https://cdigital.uv.mx/handle/123456789/4164>).

García Ruso, H.M. (1997). *La danza en la escuela* (1. edizioa). INDE.

García Sánchez, I., Pérez Ordás, R. eta Calvo Lluch, África. (2013). Expresión corporal. Una práctica de intervención que permite encontrar un lenguaje propio mediante el estudio y la profundización del empleo del cuerpo. *Retos*, (23), 19-22 (<https://recyt.fecyt.es/index.php/retos/article/view/34561>).

Linares Comino, P.L. (1990). *Expresión corporal y desarrollo psicomotor : un programa práctico de aplicación*. Universidad Internacional Deportiva.

López Cassá, É. (2005). La educación emocional en la educación infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 153-167. (<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2126770>).

Mendigoiti ikastetxe publikoa. <https://mendillorri-mendigoiti.educacion.navarra.es/web/>

Nafarroako Aldizkari Ofiziala. (2022). 61/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/112/1>

Ortiz Segura, A., Jimenez-Perez, I. eta Priego-Quesada, J. I. (2022). Validez y reproducibilidad de una rúbrica para el análisis de la expresividad en la danza. *Retos*, (45), 943–952 (<https://recyt.fecyt.es/index.php/retos/article/view/91197>).

Pacheco Montesdeoca, G. (2015). *Psicomotricidad en Educación Inicial*. (1. edizioa).

Plaza Morillas, E. (2019). Apuntes para la mejora de la flexibilidad en bailarines. *Revista del Centro de Investigación Flamenco Telethusa*, 12 (14), 23-29 (<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7649285>).

Rodríguez Salazar, J. S. eta Madroñero Melo, E. D. (2020). La danza y la expresión corporal: un mecanismo para representar el mundo interno e imaginativo. *Huellas*, 6 (2), 40-44 (<https://revistas.udenar.edu.co/index.php/rhuellas/article/view/5756>).

Urtiaga de Vivar Gurumeta, J. (2017). Evolución de la danza y su lugar de representación a lo largo de la historia. *A x A: Una revista de Arte y Arquitectura*, (9), 1-21 (<https://revistas.uax.es/index.php/axa/article/view/1205>).

Vicente Nicolás, G., Ureña Ortín, N., Gómez López, M. eta Carrillo Viguera, J. (2010). La danza en el ámbito de educativo. *Retos*, (17), 42-45 (<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3133244>).

ERANSKINAK

1. *eranskina*.

Koloretako munstroaren ipuina.

Hau da koloretako munstroa. Gaur arraro esnatu da, nahastuta... Egia esan, ez daki zer gertatzen zaion.

- Berrero ere bazterrak nahasten ibili al zara? Ez duzu inoiz ikasiko. Emozioekin nahasi egin zara, horrela, denak nahastuta, ez dute ongi funtzionatzen. Emozio bakoitza bereizi eta bere ontzian gorde beharko zenuke. Nahi baduzu dena antolatzen lagunduko dizut.

- Alaitasuna kutsakorra da. Eguzkiak bezala distira egiten du, izarrek bezala dir-dir egiten du.

- Pozik zaudenean barre egiten duzu, salto egiten duzu, dantza egiten duzu, jolastean ibiltzen zara... eta besteak ere pozik ikusi nahi dituzu.

- Tristurak beti sentiarazten dizu zerbaiten hutsunea. Itsasoa bezain leuna da, egun euritsua bezain gozoa.

- Triste zarenean ezkutatu egiten zara eta bakarrik egon nahi duzu... Eta ez duzu ezer egiteko gogorik.

- Amorrua sua bezala da, gori eta anker erre egiten du, eta zaila da itzaltzen.

- Haserre zaudenean bidegabekeria bat egin dela sentitzen duzun eta errua gainerakoei bota nahi diezu.

- Koldarra da beldurra, ezkutatu egiten da eta ihes egiten du, lapur batek ilunpean bezala.

- Beldur zarenean txiki sentitzen zara, ezdeus... eta uste duzu eskatzen zaizuna ezingo duzula egin.

- Baretasuna zuhaitzak bezain lasaia da, haizeak dantzatzen duen hostoa bezain arina.

- Lasai zaudenean poliki-poliki eta sakon hartzen duzu arnasa.

- Bakean sentitzen zara. hauek dira zure emozioak, bakoitzak kolore ezberdina dauka eta ordenatuta badaude, hobeto funtzionatzen dute. Ikusten? bakoitza bere lekuan hobeto.

Horia-Alaitasuna. Urdina- Tristeia. Gorria-Amorrua. Beltza- Beldurra. Berdea-Lasaitasuna.

- Eta orain... jakin al daiteke zer gertatzen zaizun?

BUKAERA.

2. eranskina.

“Animalien ibilkera” kantaren letra.

*OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)
SUGEA ARRASTAKA DABIL (hiru aldiz)*

*OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)
TXANTXANGORRIA HEGAN DOA (hiru aldiz)*

*OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)
BARRASKILOA MOTEL DOA (hiru aldiz)*

*OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)
BASURDEA SALTOKA DABIL (hiru aldiz)*

*OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS).*

3. *eranskina*.


Haurren ebaluaziorako errubrika

Ikaslearen izen-abizenak:			
Maila:			
Proposamenaren izena:			
ITEMAK	BAI	BIDEAN DAGO	EZ
Bere beharrak eta sentimenduak identifikatzeko eta adierazteko gai da, eta bere emozioen kontrola modu progresiboan doitu da.			
Emozioak (tristura, alaitasuna, beldurra eta haserrea...) gorputzarekin adierazteko gai da.			
Bere gorputzaren ezagutzan aurrera egin du ekintzak eta erreakzioak doitu eta oreka, zentzumenezko pertzepzioa eta mugimenduaren koordinazioa garatu ditu.			
Harmoniaz doitu da bere mugimendua besteen mugimenduaren eta espazioaren arabera, gorputz adierazpen libretzat hartuta, interesa eta ekimena adieraziz.			
Koreografien inguruko lanketa egin du; urratsak egoki jarraitu eta koreografia baten sorkuntzan parte-hartu du.			
Bere komunikazio errepertorioa egokitzeko gai izan da proposamenetara, solaskideetara eta testuingurura, hizkuntza guztien adierazpen aukeretan arakatuta.			
Ekimenez parte hartu du jolas eta jarduera kolektiboetan, beste pertsonekin afektu eta enpatia jarrerekin erlazionatu da, betiere banako erritmoak errespetatuz eta diskriminazio mota oro alde batera			

utziz.			
Sorkuntza-lan plastikoak egin ditu, materialak eta teknikak esploratuz eta erabiliz, eta talde lanean modu aktiboan parte hartuz beharrezkoa denean.			
Erlaxatzen ikasi du.			
OHARRAK:			

4. eranskina.

Semaforoa (haurrek ebaluatzeko fitxa).

<i>SEMAFOROA</i>	
Izen Abizenak:	
Gustukoa izan da?	

5. eranskina.

Proposamenaren ebaluaziorako errubrika.

Proposamenaren izena:			
Maila:			
ITEMAK	BAI	IA BETI	EZ
JARDUERAK			
Saioak haurrentzat motibatzaileak izan dira.			

Jarduera bakoitzean erabilitako materiala egokia izan da.			
Emozio ezberdinak dantza eta gorputz adierazpenarekin lantzea lortu izan da.			
Planteatutako jarduerari esker, haurrek esperimendu ahal izan dute beren gorputzak eskaintzen dizkien mugekin eta mugimen-aukerek.			
Jarduera bakoitzean erabilitako metodologia baliagarriak izan dira.			
IRAKASLEAREN ROLA			
Jarrera egokia izan du planteatutako helburuak lortzeko.			
Saioan zehar sortutako arazoei irtenbideak bilatzen jakin izan du.			
Saioa behar bezala aurrera eraman du (saio bakoitzeko faseak, iraupena... errespetatu ditu).			